


Irati Astondoari alkarrizketea Urrezko Aizkora Txapelketea irabazi ostean

11. orrialdea

Igor Estankonak bere bosgarren poema liburua kaleratu dau

Hamaika urte intenso batzean ditu egileak *Moskito* poema liburuan, 80 orritan kondensata. Bertan, aitatasunaz, bikoteaz, nazinoaz eta heriotzeaz jarduten dau, lainoan moduan, zeharkako estiloagaz.

13. orrialdea



Emon dabez jakitera Dimetalen joko daben talde guztiak

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

337

2020ko apirilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Kanpoan dana geldituta, barruetan atsedetik ez

COVID-19 birusa zabaltzen ez jarraitzeko alarma egoera luzatu eta funtsezkoa ez dan jarduera guztia eteteko dekretua emon dau Espainiako Gobernuak.

Arratian, Ubiden eta Zeberion kaleak hutsik dagoz, dendak eta tabernak zarratuta, baita fabrikak be. Baina ate atzeetan, eskualdeko mediku eta erizainak beharrera joateko prestatzen dira. Lan gogorra, ordu luzeak ospitaleak gainezka eta osasun langileak gaixotzen dagozan honetan. Itsaso Bengoetxea medikuaren lekukotasunak erakusten deusku zein gogorra dan osasun krisia.

Etxeetan telelana. Eta 3D inpresorak daukiezanak, osasun langileentzat babes materiala sortzean dabe; udalak eta herritarrak makalena jatekoak eta botikak eroaten deusez etxera, eta umeak jarraituten dabe ikasten etxetik. Kultura eta kirola ez dira guztiz hil. Terraza eta balkoietan zumba egitera animetan dau Ismak; musikariak eta bertsolariak, kontzertuak eta bertso-saioak emoten dabez balkoietan; alkarteak, etxean egiteko ekintzak antolatuten dabez... Eta badira batzuk, hau amaituten danerako, jaiak eta jaialdiak prestatzen dabizenak be. **8. eta 9. orrialdeak**



Argazkia: Arteako Udala.

LEMOA

Badaiotz taldeko Ruth Linaza tiralari txapeldunari alkarrizketea

Zezeilean Irlandan jokaturako Munduko Txapelketatik lau domina ekarri ebazan Ruth Linazak. 2003an hasi zan lemoaztarra Badaiotz taldean eta harrezkerotik beste 6 urre irabazi ditu taldeak Munduko Txapelketetan. Ez da tiralariak egiten dauan kirol bakarra; herri kirol askotan jarduten dau: trontzan, ingudean eta lasto altxatzen, barbarako, eta Euskal Herriko Andrazkoen Lasto Altxatze Txapelketea antolatzea gurako leuke. Lanbidez hezitzailea da urte biko umeen gelan. **10. orrialdea**



BEDIA

Karlos Aretxabaletak lau ipuin erotiko argitaratuko ditu Gaztezulon

Ez da Ruandan jaio eta Bedian bizi dan Karlos Aretxabaletaren proiektu bakarra. Jon Amorrortu marrazkilaria gaz be eskuartean dauka proiektu bat, poema baten inguruan. Gainera, Arratiako noka (andrazkoai zuzendutako hitanoa) berreskuratze lanean be badabil. COVID-19a dala-eta, etxean geratzeak beste hamaika konturi heltzeako aukerea emongo deuskula danoi uste dau. **12. orrialdea**

ARRATIA

BEGITUK Argazki Lehiaketea abiatu dau eta mezuentzako espazioa dauka

Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea ipini dau martxan BEGITUK. Alarma egoera amaitu arte bialdu daitezke argazkiak, bost gehenez, begitu@topagunea.com helbidera eta hurrengo BEGITUN publikako dira. Saria, konfinamendua amaitutakoan, Garena jatetxean persona birentzako dastatzeko menua izango da.

Sasoi digital honetan, papelean be mezuak bialduteko espazio barri bat sortu dau BEGITUK. Persona konkretu bateri, talde bateri edo irakurle guztiai zuzendutako irakurleak bialdutako mezu animosoak argitaratuko dira bertan. Mezuak 250 karaktere inguru izan behar ditue. **5. eta 7. orrialdeak**

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

Literatura txokoa

BILBOKO MUSEOAREN ALFABETOA

Mesanotxean daukat liburua, eta horrexetarako da egokia. Mesanotxe gainean euki, nozik behinean zatitxo bat irakurri eta esaten deuskunaz hausnartuteko. Ostantzean, behinola esaten genduan moduan, estanpak begiratuteko be aproposa, daukazan artelanen inguruko argazkien edertasunak gozamina eta baretasuna senti-duarazoko deustu eta.

Liburu ikusgarria benetan; bera be artelana, bai diseinu aldetik, erabilitako papera, dituan argazkiak, letrakera... eta daukan balio literarioagaitik.

Bilboko Arte Ederretako Museoak egindako izenburu bereko erakusketearen katalogo bitxia. Erakusketea bera be bitxia zan

heinean liburua be bai.

Museoko artelanak modu desbardinian ikusi leikezan han: ibilbide alfabetikoa sortu eban Kirmen Uribek, letra bakotxari berba bat lotuz eta berba horren esangurearen arabera artelanak bilduz; alkarregaz sasoi desbardinatetako eta guztiz estilo diferentetako lanak Uribek emondako argudioak lotuta.

Hori gitxi balitz, berba bakotxagaz testua sortu eban idazleak berak bakarrik dakien modu horretan, labor, argi, zehatz, itxuraz sentzilo, esanguraz sakon, entretzenigarri, aitamenez eta zitaz josia; literatura eta artelanak alkarrizketan jarri. Pinturak eta eskulturak dira bai erakusketan

bai liburuan agertuten diranak eta aitatu moduan euren inguruko azterketa bitxia bezain interresgarria egiten dau Uribek.

Gure kultura, hizkuntzea, literatura eta gure artistak nazinoartekoan maisuki integratuten dauz liburuak. Horra hor bere baloreetako bat.

Beste bat be badauka: lau hizkuntzatan dagoz testu guztiak, euskera, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Alfabetorako aukeratu ebazan berben moduan: **Arte**, **Bilbao**, **Citoyen**, **Desira**, **Espejo**, **Friendship**, **Grotte**, **Heriotza**, **Iron**, **Japon**, **Kirol**...

Holan euskeraz gainera, beste hizkuntzaren baten be irakurri geinkez testuak, hizkuntzok ikas-

teko edo gogora arazoteko balio ahal deusku, itzulpenen arteko konparazioak egiteko, zeinetan dozuen gustukoen testu bakotxa asmatzeko edo dana dalakorako.

Enfin, dinodana, oheburuko liburua izateko jaiola, lantzean zatitxo bat gozatu eta lo gozoan segiduteko.

Maite Artabe Urkiri

Kirmen Uribe

Bilboko Museoaren alfabetoa

Bilboko Arte Ederren Museo

408 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiaren 30etik apirilaren 5era

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 6tik 12ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 13tik 19ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Pernil



Txarriaren hanketako izterra gatzetan egosiari, onduari edo york-ekoari pernil esaten jako (pernila, ahoskatuta). Batuan, urdaiazpiko erabilten da gehienbat. Pernila, batez be uzkurak jan dituen txarriarena bada, jateko sano estimadua da gure artean. Txahalaren izter barruko hazurrari edo zankarroiari, barriz, pernil-hazur esaten jako Diman (pernilásurre, ahoskatuta). Amaituteko, hona hemen argazkiagaz lotutako adibide hau: "Ondo jakin dakizu pernila finduten!".

ERETXIA

Zertarako balio dau honek?

Galdetzen deuste ikasleak, batez be erronka gaxa, barria edo luzeren baten aurrean. Motibetako argi izan behar ei dogu zertan eta zertarako gabilzan, horrek J.A. Marinaren esanetan gure barruko desirak bizten ditualako. Ikas prozesua martxan ipinteko urrezko galderak da gela barruan egiten dabilena, horra nire kobrezko erantzuna: bizitzarako.

Kuriosoa da zelan beste ikasgai batzuetan, hizkuntzak, matematika... ez dan holango galderarik egiten askotan.

Baina 2020 urtean, kulturearen espektakularizazioaren aroan biziteagaitik adierazmenetako ikasgaiak aisiagaz erlazino zuzena daukiela pentsetan da, hartaz ikasleak dibertitzen ez diran momentuan galdera honen distirak gelako espazioa beteko dau.

Distira hori aprobetxau eta alkimia egin gurean, klariona eskue-tan, arbelean marrazten hasten naz:

Dimensioetan pentsau daigun. J.F. Champollionek azaldu euskun moduan, Egiptoko kulturaren oin dala 5000 urte, hondoa-figura, dimensio bitako irudi planoakaz kontetan eben errealdadea, marrazkiak hieroglifiko bihurtu, piktogramak, horra idazkera, gure zibilizazio askoren zuztarrak, ideak berba bihurtu eta berbak idatziaz hurrengoari azaldu.

Oin imajinatu daiguzan hiru dimensio, Errenazimentuan XV. mendean Brunelleschi bitxigilearen modukoak perspektiba konikoa zelan erabili erakutsi euskuen, eta historian lehenengoz egin baino lehen irudikatu eiteken eraikuntzak zelan geratuko ziran. Horrek denporea aurreztu, kostuak jaitzi eta eregi baino lehen erabakiak hartzeako bidez gainera geure buruari hiru dimensiotan, sakontasunean, zelan pentsau erakutsi eutsien.

Sakontasunean pentsetako,



GOTXONE TUTOR

Irakaslea

sakontasuna deskodetzen ikasi behar da, geure buruak ez dau era naturalean eta berez egiten, behin bide hori eginda beste era baten pentsetako aukerak daukaguz, gaurko hiru dimensiotako inprimigailuak eta teknologia guztia kasurako.

Laugarren dimensioa kubistak arakatu eben XX. mende hasieran. Sakontasuna eta altuera ez ezik denporearen dimensioa be sartu gura eben euren koadruetan.

Maria Blanchardek bere bodegoietan zidarrezko frutaontzi baten alde guztiak erakusten deuskuz, hemen eta oin aldi

berean bata bestearen ondoan destolestuta.

Margolan kubistak ez dira ez ederrak ezta ulertzeko errazak izaten, desbardin begiratzeko esfortzua eskatzen deuskue. Kubisten formula hori erabilterakoan, korden teoria, Internet, edo sare sozialen etenbako konektibidadea eta ubikuidadea moduko gaiak zabaltzen deutseguz ateak.

Ateok zeharkatzeko baina, ikusten ikasi behar izan dogu, ikuste hori zientziagaz, filosofiagaz, hizkuntzakaz, eta zelan ez arteagaz lortu dogu.

Artea gure zibilizazio eta kulturearen oinarri-oinarrian dagoan ezagutza mota bat da, persona izateagaz jaiotako, eta zeharkatu egiten gaitu, egunero inguruera eraldatuz, uranioak legez.

Uranioa partikulak kitzikatze ahalmena daukan metala da, horra 5. dimensioa, errealdade paraleloen teoriak dabiz gaur egun aztertzen CERN moduko puntako zientzia ikerguneetan.

Reina Sofia museoaan kuradorea dan Isabel de Naveranek artearen barruan ere materialtasunaz gain dagoan unearen lanketan, gorputza, ikasitako jeshualidadea eta bizitzari buruzko ikerketan dabizela dinosku. Gorputzak aztertzen, gizateriaren historia osoa gorputzean eta jeshuetan biziten da-eta.

Errealdadea irudikatze, eta beraz ulertzeko, prozesatzeko, erabilteko, edo esperimentatzeko balio deusku arteak.

Galdereari erantzun ondoren, ikasleai begiraten deusdedanean, batzuk euren pentsamentuetan galduta ikusten dodaz, sei begi daukadaz iltzatuta, eta begi bik niriñir egiten dabe.

Azalpena barneratu dau, galdera barri bat jaiotako: hezkuntza sistemearen ikasgai eta orduen antolamentuaren inguruan. Txirriak jo dau, beste irakasgai baten txandea dator.

Jakinmina da sormen eta ikerketea bizten dituan poxpolua, nire erantzunak kobrezkoa izaten jarraitzen dau baina agian badau gainetik rodio patinatxo bat, edo ez?

LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Mesfidantzea akaso

Gure bizimodua guztiz aldatu dauan birusari buruzko informazio eta ezinformazioaren basoan, sasiak garbitu eta zuzeneko bidezidorra topatzea ariketa gaxa egiten jata.

Aitortzen dot: aurreretxi ezezkorra izaten dot mezu ofizialengan. Agian urteetan komunikabideak nire barruan erein daben mesfidantzearen ondorioz, birus honeri aurre egiteko hartutako bidea, guztiz zentzubakoa iruditzen jata, lasaitasuna erein beharrean gaixotasunaren inguruko mezu apokaliptikoak zabaltzen dira, eta horregaz, osasun sistemearen kolapsoa ekiditu beharrean laguntzen da. Ariskua bertan daukagu! Izan zaitez arduratsu, erakutsi alkartasuna, geratu zaitez etxean! esaten deuskue eta horretan gabiz diskurso horreek irensten eta inork be ez zalan-tzan jartzen.

Heriotz taseari erreparatuta

koronabirusena ohiko gripekoa baino bajuagoa dala frogatuta be, ez dot nik gaixotasunaren hedapenak ekarri leiken larritasuna ez-baian jarriko. Ha-ta guzti be, osasun sistemearen kolapso arriskua gixtizteko gaixotasuna etxean ahalik eta hoberen pasetako behar dogunari buruzko informazioa izatea ezinbestekoa dala bururazten jata, eta zentzu horretan oso informazio gixti emoten deuskue. Ni ez naz osasun arloan, ez beste arlo potoloetan be, aditua, baina nire uste apalean, ejerzitoa, polizia, zein mediku nahiz erizainen aurretik be, bakotxa da norberaren osasunaren lehenengo zaintzailea eta horretarako informazio eta baliabideak ezinbestekoak dira. Horretan gauza gixti egiten ari da osasun krisi sasoi honetan.

Mesfidantzea akaso, baina segurtasunaren izenean personen oinarriko eskubideak urratu edo murrizten diranean alarma gorriak bizten jataz. Jendarte kontrolerako eta portaera nahiz pentsamentua bideratzeko frogak jatortaz gogora. Bi aste laburretan ahaztu jaku migrazino krisia, munduko pobrezia eta gosetea, eten jaku erabakitzeko eskubidearen aldeko prozesua, hainbat andrak bere erasotzaileagaz partekatu behar dau konfinamentua... Etxean gagoz, konektauta gagoz, "Gran Hermano" k begi guztiak gure gain ditu! Eta ez dot uste gauzak koronabirusa baino lehenagoko abiapuntura erraz itzuliko diranik.

ZERTZEAN



EÑAUT INTXAURREAGA

Gaia jarrita: "Urte batzuk beranduago..."

1

Bi mila eta hogeian udabarri bezperetan mehatxu ikustezin bat kok-xokka gendun atetan ustez indartsu ginenok mendebaldeko lurretan zein hauskor sentitu ginen hauskor ta ahul benetan bildurra libre ebilen bide barriak topetan zein errez sartzen zan gure barne zirrikituetan zoezer ikasi al gendun amaibako egun haietan hori argitzera nator ondorengo lerroetan.

2

Behartuta gengoanez geldigeldi egotera egoten ikasi gendun bai ze, ze beste aukera kondentuta gengoan pentsatzera hausnartzera ixilune luzeetan norberari entzuzera presaren gixtari behingoz alto esatera pazientziaren indarrak behin-betiko jabetzera benetan zer dan funtsezko gogoeta egitera geuretzat geunkozan danak babestera maitatzera.

3

Pausuak emon genduzan ingurukoen zaintzara pausuak emon genduzan berba ederrenetara bai alkartasunera ta baita be enpatiara funtsean pertsona orenen oinarriko naturara aldatu gendun mundua ulertzeko begirada atoan ulertu gendun ta esaten gendun hara: hemen garrantzitsu ni ez garrantzitsu hemen gu gara eta ordutik mundua gixtiarragoa da.

Doinua: Habanera.

BEGI TXINDORRA

Salbuespenak salbu, orokorrean, landa eremuetan eta herri txikietan konfinamenturako beharrezkoena dana daukagu: zeru zabalak, etheen arteko espazioa eta airea eta hori disfrutetako, etxe aurre zabalak ditue baserrietan; lorategiak, etxe bakartu batzuetan; terrazak eta balkoiak gehienetan, edo-eta kanpora emoten dabezan leihoak daukiezanak.

Balkoian dago beharrean gure laguna. Esan lei balkoiak bihurtu dirala protagonista konfinamentu sasoiaren. Beharleku, gimnasio, aldarrikapenentarako eta osasun beharginai txalotzeko topaleku eta gure bizitzen erdigune bihurtu dira. Han hartzean da amasea eta harago begiratzeko aukerea emoten dabe. Udabarria hasi dala be balkoitik ikusten dogu.

Egoera honetan, bakotzak etxean daukan espazioa da akaso inportanteena goiari eutsi ahal izateko. Baserrian bizi diranak dira espazio aldetik aberatsenak; gero, terraza eta balkoidunak datoz eta horreen ostean, bistak dituen bizilekuetan bizi diranak. Kanpora begirako lei-horik ez daukien etxeetan bizi diranak dira behartsuenak.

Balkoira urtetea premina handiko gauzea bihurtu da. Arnasea hartzeako eta urrunera begiratzeko. Han, urrunean, zeru zabal honen azpian mendiak eta esperantzea dagozalako.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zerbait 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22
ETROITZ
Agortzen guretzat osatzen.

ARRATIA

Kamioientzako hamaika bazterbide egingo dabez N-240 errepidean Zeanuri eta Bedia arteko zatian

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Portuko

Agintaritzak N-240 errepidean trafikoa hobetzeko

garraio berezietarako bazterbideak sortzea adostu dabe.



N-240 errepidea Areatza parean.

Erredakzioa

Proiektuak, Zeanuri eta Bedia artean Bilborako norabidean, geldialdi teknikoko hamaika gune egokitzeko helburua dauka. Gune honeetan, trailer luzeetako gidariak gelditu egin beharko dira kotxeai pasetan ixteko trafikoa handia danean. Aurrekontua 2,3 milioe euro ingurukoa da.

Geldialdi teknikoko eremu bakotxaren ezaugarriak eta neurriak orografiara eta lursailaren erabilgarritasunera egokituta egongo dira. Zabalerak 5,5 metro izango dira gitxienez eta 13 gehienez, eta luzeerak, barriz, laburrenarenak 107 metro izango ditu eta luzeenak 243 metro.

Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da eraikuntza proiektuaz, beharrezko lurzorua ipintez eta ibilgailu berezientzako hamaika bazterlekuak gauzatzeko kontratua lizitatzeaz. Portu Agintaritzak, barriz, finantziatzeaz.


Obrak esleitzeko aurreikusitako

fetxea 2020ko zemendia da. 2021eko zezeilean hasiko lirateke obrak, eta 19 hilabeteko epea izango dabe lanak egiteko.

N-240 Arratiatik

Kargan espezializautako portua da Bilboko eta N-240 errepidea, Tarragona-Bilbo Barazarretik, mesetatik garraio terminal handietara iristeko bide nagusietako bat. Portuak 2019an, 4.099 pieza berezi jaso ebazan. Pisurik handiena euki ebana 500 tonakoa izan zan; luzeena, 70 metrokoa; zabalena, 7,5 metrokoa; eta altuena, 8 metrokoa. N-240 errepidetik garraio bereziak ez bakarrik Bilboko Portura, baita aireportura eta salgaien garraiorako gune logistikoetara be jotzen dabe. Hori dala-eta, kamioien trafikoa handia izaten da. Errepide zatiaren arabera, egunean 2.100 eta 3.500 kamioi artean pasetan dira.

Proiektu honen helburua, portuan jatorria edo helmuga daukien salgaien trafikoa errepidean daukazan ondorioak arintzea da.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aldaketak BEGITUN alarmeak irauten dauan bitartean

COVID-19ak sortutako osasun krisiak, eragin handia dauka aktualidade informatiboan: erakundeen jarduna geratuta dago, eta kirol eta kultura arloko ekitaldiak be bertan behera geratu dira.

Erredakzioa

Koronabirusari buruzko informazioa ez ezik, gainerako esparruetako informazioa emoteko ahalgina egingo dau BEGITUK, baina argi dago batez be kirol eta kultura arloko ekintzen eteteagaz barriak beste era batera emongo dirana.

Dana dala, egoera honetan be, kazetaritza zorrotz, arduratsu eta konprometiduaren alde egiten jarraituko dau BEGITUK.

Agintariak esandako higie eta segurtasun neurriak hartuta, BEGITU etxez etxe bananduten jarraituko dabe banatzaileak; izan be, katebegi ezinbestekoa da, guztion

informazio eskubidea gauzatu daiten. Gainera, gogoratu PDFn be deskargatu daitekela aldizkaria www.begitu.org webgunean.

Topagunea

Euskaltzaleen Topagunea alkarteak be hainbat neurri hartu dauz COVID-19 koronabirusaren hedapena eteteko. Neurriok alkarteak antolatutako egitasmoetan eta barruko lan dinamiketan eragiten dabe. Holan, ekitaldiak eta jentaurreko ekimen guztiak atzeratu egin ditue, langileak batez be etxetik egiten dabe behar eta erakundeen gomendioak jarraitzeko aholkuak zabaldu dabez kide guztien artean.

Euskal hiztun komunitateak euskeraz bizi ahal izateko tresnak sortzeako sortu zan Euskaltzaleen Topagunea 1996an, tokiko hedabideak bultzatuz. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, alkarte horretako partaidea da.


ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Etxean Hobeto Argazki Lehiaketean ipini dau martxan BEGITU Aldizkariak

Erredakzioa

Etxetik urten ezinda, goiari eusteko kolorea eta edertasuna inoz baino beharrezkoagoak dirala eretxita, Etxean Hobeto Argazki Lehiaketean ipini dau martxan BEGITUK. Alarma egoerea amaitu arte bialdu daitekez argazkiok, bost gehienez, begitu@topagunea.com helbide elektronikora eta hurrengo BEGITUN publikauko dira. Gainera, saria be izango dau momentuaz gozatzen gehien lagunduten dauan argazkiak. Saria, Garena jatetxean persona birentzako dastatzeko menua izango da, etxetik urten daitekenean konpainiaz disfrutatuko.

Etxe barruan zein kanpoan leihotik edo balkoitik ikusi daiteken txoririk ederrenari erretratua egin eta bialdu BEGITURA beste irakurleakaz partekatzeke. Egoera honetan inoz baino gehiago, momentu ederrak partekatzea alkartasuna da, eta lehiaketan parte hartzea solidario izatea.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Kolaboratzaileak behar ditu BEGITU Aldizkariak

Erredakzioa

Komikia sailerako, hiru komikigile izan ditu BEGITUK igazko abendura

arte, hiru zenbakirik behin, komikia bialtzen ebenak. Baina ordutik hona bi baino ez dabiz eginkizun horretan. Hori dala-eta, kolaborazioa

egiteko prest dagozan komikigileen bila dabil BEGITU. Hartu-emonetan ipinteko, begitu@topagunea.com helbidera idatzi.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Begitxio

Erredakzioa

Mezuak bialduteko espazio barri bat sortuko dau BEGITUK. Ez jakiez WhatsApp, Twitter eta sare sozialetan legez, momentuan helduko hartzailei, hamabostean behin eta papelean baino; lehengo gutunen eta itxaron egin beha-

rreko graziagaz. Espazio honen helburua etxetik urten ezin dan honetan jenteari adorea mantenduten lagundutea da eta persona konkretu bateri, talde bateri edo irakurle guztiai zuzendutako irakurleak bialdutako mezu animosoak jasoko dira bertan.

Bialtzaile bakotzak gura beste 250 karaktere inguruko mezu bialdu leikez begitu@topagunea.com helbidera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Udalekuak

Erredakzioa

Udarako osasun krisia gaindituta eta normaltasunera bueltauko garan esperantzeagaz, Dimako Udalak, Bediakoak eta Zaztaparrak Asti Taldeak ume eta gaztetxoentzako udalekuak prestatuten jarraituten dabe.

Bedian martiaren 2tik 19ra izan zan izena emoteko epea. 3 eta 5 urte bitartekoentzat dan Txiki-Txokoa eta 6 eta 12 urte bitartekoentzako udalekuak bagilaren 29tik garagarilaren 10era dagoz aurreikusita. Bediako Uda Gaztean, 13 eta 15 urte bitartekoak Laidako kanpinera eta Ordesara dira joatekoak garagarilaren 10etik 18ra, eta 15 eta 22 urteko gazteak Senegalera joango dira eskola bat

atontu eta barrizatzeko eta hango umeakaz eskolaz kanpoko ekintzak egiteko. Plaza guztiak beteta dagoz.

Dimako Udalak, udalekutan eta Gazte Abenturan izena emoteko epea dauka zabalik hilaren 17ra arte. 2007 eta 2015 bitartean jaiotakoentzat udaleku irekiak; hau da Diman bertan goizetan, eta udaleku ibiak, kanpoan astebete, garagarilaren 6tik 10era. Gazte Abentura barriz, 2002 eta 2007 artean jaiotakoentzako bagilaren 29tik garagarilaren 3ra egiteko asmoa daukie.

Zaztaparrak be udalekue-tako matrikulazio epea zabalik daukie apirilaren 5era arte. Udalekuetara joateko asmoa daukien umeak formulario bat bete behar dabe <https://forms.gle/7EUuVbFwBpqeXB3A> estekan. Abuztuaren 3tik 14ra arte Oionen izango dira.

ZEBERIO

Zeberioko errepideko lanak beranduago amaituko dira COVID-19a dala-eta

Erredakzioa

Urte t'erdi ondoren, Zeberioko errepide nagusiko lanak amaitzeaz dagoz. Asfaltatzea baino ez da falta. Martiaren 17 eta 18rako egoan programata asfaltatze proba egitea eta martiaren 30ean, asfaltatze lanak hastea, hogei egunetan amaituteko. Baina COVID-19a ez zabaltzeko neurriakaz atzeratu egin da eta epe barria noz ipini ahal dan be ez dago jakiterik.

Zeberioko BI-3524 errepidea da, alde batetik Arteara eta bestetik Ugaora doana. Lanak 2018an hasi ziran eta 3,5 milioe euro inguruko aurrekontua daukie. Bide-arroila inguruak drenau ditue, hormigoiztatu, zeharkako hodiak ipini eta arketak egin eta ibilgailu handiak hondatutako zoladura-eremuak konpondu egin dira. Atzenik, asfaltatu eta pintatu. Drenatze eta hormigoiztatu lanak, Orozkoko bidekurutzetik Santa Kruz auzuneraino eta Orozkoko bidekurutzetik Ugaora arteko asfaltatzea egin dira, hamahiru kilometro inguru.

Errepide horretatik kamioi asko pasetan dira eta bidezorua erraz hondatuten da. Gainera kaminoa estua da eta bihurgunez beteta dago. "Ikusten dana baino istripu



BI-3524 errepidea.

gehiago dagoz, nahiz eta zorionez txapazko kolpeak baino ez diran. Agian errazoi horrek, bihurgunez betetako errepidea izateak, ez

dau abiadura handian gidatzeko aukerarik emoten" azaldu deutso BEGITURI Beñat Iriondo zinegotziak.

★ BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Galder 666 58 20 06

Pozuetta poligonoa, 10 LEMOA ★ beeredonik@gmail.com

“Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean, begirada osoan begituten beti” Gontzal Mendibil

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

ZEBERIO

Biomaseagaz berotuko dabez udal eraikinak



Zeberioko udaletxea.

Erredakzioa

Zeberioko udal eraikinak biomasea erabiliko dabe berotuteko. Gasolioa erabili dabe oin arte eta horretarako galdarak aldatu beharko dabez. Aldaketa honek CO2 isurketak murriztu eta berokuntza fakturan %40 aurreztea espero dabe. 198.000 euroko inbersioa eskatzen dau proiektuak.

Lizitazinoko oinarriak prestatzen dagoz eta apirilaren erdikaldera lizitazinora ateratea espero da.

Kultur Etxean, udaletxean eta gaztelekuan, gasolio galdarak dagoz. "Honeen orde, biomasa galdara bat ipini gura da, jagokon siloagaz, Kultur Etxeari eta udaletxeari zerbitzua emoteko eta beste galdara txiki bat jarriko litzateke gaztelekuan" azaldu deusie BEGITU Udaletik. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) diru laguntzak ditu. BFAko Ingurumen Sailak 120.000 euroko diru laguntzea emon deus Udalari eta EEEK 24.000 eurokoa.

Biomasearen alde onak

Zeberioko Udalaren eretxian asko dira biomasea erabiltearen alde onak eta oindino gehiago pellet-a aukeratu ezker, "biomasa barietate desbardinaren barruan, pellet-a aukeratu dogu: egurra trinkotu eta lehortuz sortzean dan erregaia da, zerrategietatik edo beste industria batzuetatik datorrena".

Biomasa galdarak erregai barritagarritzat jotzen dira. "Izan be, CO2 isurtzen daben arren, landareak xurgatzen daben CO2 bera da, eta beraz emisio horreek baliobakotzat jotzen dira" azaldu dabe. Gainera, bertako baliabide energetikoa erabilteko aukerea emoten dau, menpekotasun energetikoa murriztuz; pellet-ak bero ahalmen handia dauka eta errauts gitxi sortzean dau, eta landa eremuetan enplegua sortzean lagunduten dau.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Tamainu handiko hondakinak batzeako zerbitzua etenda

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta Arratia-Nerbioi eskualdeko udalak, Zeberioko Udala, tartean; COVID-19 koronabirusa dala-eta, alarma egoerak iraun bitartean hartutako neurrietako bat, tamainu handiko hondakinak batzeako zerbitzua etetea izan da. Horrezaz gainera, zaborra modu seguruan kudeatuteko hainbat gomendio emon ditue.

Etxeko hondakinen bilketea mantentidu egiten da, baina kutsadura arriskuak gixitzeko herri-tarrai eskatzen jakie eukiontzit kanpo hondakinik ez ixtea, eukiontzitak eskuakaz ez ikututea eta pedalai lehentasuna emotea. Eta gogora arazoten dabe, erosketak egiteko edo beste gauzetarako erabilitako latex edo nitriloko eskularruak ez dirala ontziak eta ez dirala eukiontzi horian bota behar, errefusa frakzinokoa baino.

Ontzi zuriaren bilketeari jagokonean, donazioak etxean gordetzea gomendatzen dabe, egoera onean mantentiduteko.

Gaixotasunak jotakoen zaborren kudeaketea

COVID-19ak kaltetutako eta kurentenan dagozan personakaz kontaktua izan daben hondakinen edo materialen kasuan, honako hau da jarraibidea: gaixoaren hondakinak boltsa bikotxean gorde, biak itxiera hermetikoagaz, eta ondoren, errefusa frakzinoko ohiko hondakin boltsaren barruan gorde eta errefusa eukiontzira bota.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aprileko lehenengo hamabostaldiko kirol eta kultur ekintzak be bertan behera edo atzeratuta geratu dira

COVID-19a ez hedatzeko neurrien artean, alarma egoera beste 15 egun gehiago, apirilaren 12ra arte, luzatutea ebatzi eban Espainiako Gobernuak. Holan, ordurarte gixienez, jarraituten dabe galazota kirol, kultur eta aisialdi ekintzak. Izan be, kiroldegia eta kultur espazio guztiak zarratuta dagoz eta jenteak etxetik ez urteteko agindua dauka. Holan, alde aurretik apilerako programata egozan ekintzak bertan behera geratu dira edo atzeratu ditue.



Erredakzioa

Arantzazun, apirilaren 2an, *Kontrol penala eta feminismoaren* inguruko berbaldia egoan programata. Begoña Zabala, berbaldia emon eta justizia feministek zelangoa izan beharko leuken hausnarketea bideratzeko za.

Artean, apirilaren 3rako aurreikusita egoan Oiane Valeroren *Euskal langile andreak* liburuaren aurkezpena. Ikerketa honetan Valerok, Euskal Herriko langile andrak bizi izandako nazino, klase eta sexu zapalkuntzak ikustarazoten dauz.

Bedian, apirilaren 1eko liburu-maleta ibiltaria geratu da bertan behera. Ikasturtean zehar egiten

dan umeai zuzendutako jarduera honetan, Ondit Mendizabalek, ipuinetan murgildu, istorioak kontau eta sorkuntzearen bitartez personajeak landuten ditu.

Igorren, Laburbira emonaldia apirilaren 3rako egoan programata, euskerazko 9 film labur, tartean Dimako bi. Munduari Jira eta Bira, umeai zuzendutako Gurutze Gorriaren interkulturalidadea landuteko proiektua be, bertan behera geratu da. Izan be, apirilaren 6tik 8ra, umeen eskoletako oporrak aprobetxauz ziran egitekoak eta konfinamentua luzatzean ezin izango da egin. Zapatu eta domeketako zineak be persianea bajatu dau. Eta andrak alkarregaz galapan egiteko Gu Be Bai Runners ekimena eten egin da.

Lemoan, apirilaren 4rako eukan antolatuta Karabie Gaztetxeak Sargardo Eguna. Egun horretarako, kalejireia, bazkaria, elektrotxarangea eta Raust eta Calling the Riot taldeen kontzertuak egozan programata. LemoaHarrobi alebin futbol torneo be apirilaren 18an zan jokatzekoa eta COVID-19a eteteko neurriak dirala-eta ez da jokatu.

Zeanurin, Eguzkiolak antolatutako, Elda Barrerok bideratutako Arteterapia eta sormen tailerrak be

bertan behera geratu dira.

Eskualdeko mendi taldeak antolatutako urtekerak, sagardo sasoia hasten dan honetan kuadrillak antolatutako txangoak, jubiladuak antolatuten dabezan ekintza guztiak... atzeratu egin dira, kasurik onenean, konfinamentua ez bada lar luzatuten; asko luzatu ezkerro barriz, galdu.

Ikastaroen jarraipena kolokan

Gure eskualdeko herri gehienetan, yoga, pilates, zumba, eskulanak eta gimnasiaren mota bat edo beste antolatuten dabez udalak. Baita arte aplikatuak, jantzea, informatikoa, sukaldaritzea, hizkuntzak eta beste arlo askotako ikastaroak be antolatuten dira ikasturte osorako prezio onean. Alarma egoera dala-eta, eten egin dira danak. Egoera hau noz amaituko dan ez dago jakiterik baina horren arabera, klaseetara bueltatuko dira edo ez dira bueltatuko ikasleak.

Igoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak be eten egin behar izan ditu hasita eukazan ikastaro bi. Inma Merino de Castrok emoten dauan *Autoconocimiento y autoestima* urtailaren 10ean hasi zanak, momentuz saio bi galdu ditu, martiaren 20koa eta apirilaren 3koa. Beste saio bat dauka maiatzaren 15ean Igorreko Kultur Etxean, momentuz ez dana bertan behera itxi. Monica Nuñez eskutik *Soñar, crear y crear* ikastaroen atzen saioa martiaren 18rako egoan programata. Alarma egoera bagilera arte ez bada luzatuten, saioak "berreskuratzen" saiatuko dirala azaldu deus BEGITU Bardintasun Teknikariak.

Mazala Andra Taldeak be mar-txan eukan *Biografia humana* tailerra. Martiaren 5ean hasita, bertan behera geratu dira martiaren 17 eta 26ko saioak. Hurrengo, apirilaren 23an da eta kolokan dago. Osasun egoera dala-eta, hartzean diran neurriak daukie atzen berbea.

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elkando, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 62 - 608 664 018

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gixitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Amopu eta Puertuburu
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 43 81

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

COVID-19

Alarma egoerea luzatu eta funtsezkoa ez dan guztia gelditu da

Alarma egoera gitxienez apirilaren 12ra arte luzatuta onartu eban Espainiako Kongresuak martiaren 25ean eta 29an, funtsezkoak ez diran jarduerak eteteko 10/2020 dekretua emon eban. COVID-19aren hedapena eteteko hartutako neurriak, Arratia, Ubide eta Zeberio kaleak hutsik dagoz eta jarduera ekonomikoa ia gelditu egin da. Ez ordea, konfinamentuak eta hartutako neurriak ekarriko dabean ondorioak leuntzeko ekimenak. Izan be, kontau ezinak dira herritarrak eta udalak jentea kutsatu ez daiten eta konfinamentua ondo eroateko abiatutako ekimenak.

Eredakzinoa

Hamabostaldi honetan, herriak desinfektetan ibili dira udalak, traktoreak eta zisternak erabiliz eta eskuz fumigetan flujua handiko lekuak. Dimako Udalak, herritarrei laguntzea eskatu deutse euren etxe

inguruak desinfektetako eta horretarako gomendioak emon deutsez. Diman, Areatzan, Artean, Igorren... kale garbiketa bereziak egin dabez eta garbiketa honeetan "azpiegituretan, arreta berezia ipinten jakie flujua handia daukien elementuak (heldulekuak, argiak...). Kalean, gar-



biketa bereziak eta desinfekzioa; batez be flujua handiko lekuetan, elikadura denda eta farmazien inguruan, barbarako" azaldu deutse BEGITURI Illart Gumuzio Igorreko alkateak.

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), etxean baten bat berrogeialdian egon ezker, eta osterantzean be, zaborrak kudeatutako jarraibideak emon ditu jakitera. Etxeko hondakinen bilketa berezitua mantentzen egiten dau eta ahalik eta gehien bereizteko gomendatzen dau errefusa eukioztia lar ez beteteko. Tamaina handiko hondakinen zerbitzua etenda dago eta Kooperako ontzi zurian bota beharrekoak,

alarma egoera amaitu arte etxean eukitea gomendatzen dau.

Osasuna lehenengo

Osasun arloko langileak babes personalerako ekipamentuen faltea salatu dabe behin eta barriro hamabostaldi honetan. Arratiako Osasun Zentroan be babes ekipoen faltan dagoz eta udalak deialdiak egin dabez, maskarillak eta hidrogelak etxean sobran euki ezker, Igorreko Osasun Zentroro eroateko.

Gainera, gabezia hori apaltzeko be, herritar batzuek 3D inpresorakaz hainbat material sortzeako ekimena ipini eben martxan Maker komunitadeagaz alkarlanean. Arratiako

Zulaibar Ikastegiak osasun langileentzako bisera inprimiduten dabil, ikastetxean daukiezan 3D inpresorakaz. "Irakasleak etxera eroan dabez inpresorak eta etxetan egin eta zahar etxetara eta osasun zentroetara erosten hasi dira" azaldu deutse BEGITURI Zulaibarretik.

Igorreko enpresa batzuek, BATZ S. Koop-ek barbarako, horretan hasitako asmoa eukan, baina martiaren 29an, funtsezkoak ez diran jarduerak eteteko dekretuagaz bertan behera itxi behar izan eban asmoa.

Konfinamentuak be osasun arriskuak dakar hainbat laguntzat: beste batzuen artean, erasotzaileagaz etxean urten ezinda dagozan indarkeria matxistaren biktimantzat, eta psikologiaren aldetik preminak dituen personentzat, depresinoak jota dagozanentzat, barbarako. Indarkeria matxistaren biktima diran andrentzako, AUMk, arreta telefonikoa emoten dau 08:00etatik 15:00etara, 94 631 17 17 eta 688 627 393 telefonoetan. 900 840 111 telefonora be 24 orduetan deitu daiteke. Alarma egoera honetan, "Maskara 19" kanpaina be ipini dabe martxan Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak eta Foru Aldundiak, arrisku egoeran dagozan

Matrix

Itsaso Bengoetxea. Medikua

2020ko martiak 27, gaueko 23:00ak etxean, ordenagailuaren aurrean... aste honeetan bizitakoaren inguruko hausnarketa bat egiteko konpromisoa hartuta daukadalako, haustuta baina barruak hustutera nator. Egun eta ordu gehiegi jarraian lanean, gaitzaren atzetik etenbarik, ezin helduta... mosutruk emondako orduak, norbere zerbitzua ez dan baten lankideak jausiz doazelako ordezkatu beharra, bazkaririk bako egunak eta lorik bako gauak... Latza izan da, latza izaten ari da. Ez dakit tsunami baten barruan sartzeak zer suposatzen dauan, baina egun honeetan bizi dogun egoeratik gertu egon daitekela uste dot.

Globalizazioa, aldaketa klimatikoa, desbardintasun sozialak... eta? atzen urteotan natureak hainbat abisu bialdu deusku: SARS, ebola... beti besteai, txinatarrai, afrikarrai "toketan" jakiezan gaitzak eta gu bitartean gurera:

naturea ez errespetatzera, Zaldibarrera, txertoen kontrako mobimentura, ardurabakokeria sozialera... *Alla cuidaus*. Eta bat-batean, horra hor: pandemia bat eta bete-beteanean gurean, etxean. Gasoil deposituak sua hartzean dabenean moduan... birusa gure ospitaleetan sartu jaku. Zplastekoa.

Eta nonok tsunami honen barruan zentrifugazino programeari sakatu izan balio moduan gaixoak, personak, neumoniak jota ospitale-etenbarik, normalean aste baten daukaguzan kasu kopurua egun baten, gero hilabete baten daukaguzan ordu baten, leku faltara egokitu eta gaixotasun barri baten ezjakintasuna, zoramena, inpotentzia kudeatu behar doguz. Ziurbakotasuna manejetako masterra.

Ez dot berbakera belikoa erabiliko, osasun langileok ez gara soldaduak, guk gure lana egin gura dogu, duintasunez, ausardiaz, arriskuari aurre eginez, bokazinoarena, besteakazko kezka, enpatia gure ardatzak diralako (ez oin, beti). Gaitz honeguz gizartearen miseriak azaleratzen ikusten gabilzuzuzenean, bakardadean bizi diran nagusien babesik eza, gaixorik dagozanen isolamentu mingarria.

Gure emozioen motxilea beteaz doaz: egin ezin izan diran agurrak, bakardadean gauzatutako heriotzak, zarratu bako zauriak... Eta ez gara ezta superheroiak be, egoera honetatik urtetea gure esku jartzea, psikiatrian deskribiduten dan autobabeserako mekanismoa baino ez dalako: proiektzioa.

Ez da momentua kudeaketearen inguruko akats nabarmenak azalarazteko: EPI faltak, test faltak, indar bateratuen faltak... Osakidetza, munduko osasun zerbitzurik onena dala sarritan esateagaz egia bihurtu dogu, eta hori holan dala sinisten jarraitu gura dozuelako, saguzarrean sinisten daben umeen antzera. Ondo da. Baina, norbanakoak, gizartearen parte garan heinean zein erantzukizun daukagu larrialdi egoera honetan? 10 urte atzera begira ipinten naz eta balkoietan garasika dagozan askoren buruetan krisian langile publikoak genduzan murrizketen oihartzunaz gomutatuten naz (funtzionarioak dira, asko irabazten dabe...) eta osasun publikoak haginkadaka hustuz joan diranai botoa emoteaz eta guk gure eskubide indibidualak baino ez defendatzeaz edo norbere osasun zaintza sistemearen ardurapean

ixteaz (niri eskanerra eta analitika, *que para algo pago*) ez ete gara akaso zati txiki baten bada be egungo egoerearen arduradunak? *Alla cuidaus* hori gainera jatorku.

Eta ospitaleetik urten etxera bueltau eta hor dago: konfinamentuaren Matrix partikularra. Arazorik handiena egun guztian zehar ez aspertzeko estrategiak lantzea da, memeak, buloak, umeen larregizko etxeko lanen gaineko hausnarketak, birsaren teoria konspiranoikoak... alkarregaz egoten ohituak ez dagozan familiak, kalera urtetea aldarrikatzen daben kirolariak, bideokonferentziak, ekonomiaren mantentzeak, balkoia, auzotarrak... Larrialdi egoera hobetuteko hartutako ebaztiak bere eragin kaltegarriak izango ditu epe ertainera duda barik baita laburrera be: Matrix honetako drama partikularra konfinamentuan tortura zigorra daukien andrak, gaixotasun psikiatrikoak daukiezan personak... eta etorriko dan krisi ekonomikoa, baina ni bihar ospitalera bueltau behar naz, eta ez jata Matrix egoerakoenganako enpatiarik geldituten momentu honetan.

Udabarria argituko da, normaltasunerako bueltauko gara, poteora, kontaktura, ezta bakotxaren ostean

temperatura ez begiratzera, alkar besarkatu eta mosukatzerara eta krisi hau desagertuz, difuminatuz joango da, ekaitzaren ostean itsasoa baretuz doan moduan eta guztiok eguzkia hartzerara bueltauko zarie hondartzetara... Baina guri kostako jaku hau guztiau ahaztutea, gure arteko alkartasuna, bidean gaixorik eta txarto egondako lankideak, eraildakoak, prestutasuna, negargureak, bazkaltzeko tarte eskas baina aberasgarriak, senitartekoen ardura, hurrengo eta ete pentsetako ixiluneak, joan jakuzan pazienteen begiradak... horreek danak gizarteak krisi honetatik ikasi eta erresilientzia garatzeko esperantzea izan genduan momentuaz batera gordeko doguz.

Naturea loritzen doa gu barrik (Venezian izurdeak agertu ei dirala irakurri dot edo orkatzak Lagan...) Birusak intoxikautako zelula baten ondorioa dirala esaten eban Steiner-ek 1918ko Espainiar gripearen pandemiaren ostean... Ez dogu ba gizarte intoxikatu bat izango? Akaso holango baten natureak lortuko dau gu akabatzea... ez daigun ba merezita euki dogula esateko aukerarik itxi.

andri laguntza emateko protokolo bat adostuta. Holan, indarkeria matxista sufriduteko arrisku egoeran dagozan andrak, farmaziara joan eta laguntza eskatu ahal dabe "Maskara 19" esanda.

Psikologia Elkargoak be do-baneko arreta emongo deutso psikobizi.bizkaia@cop.es helbide elektronikoa edo 686 202 918 WhatsAppen, premian dagoanari.

Edadekoai erosketakaz lagunduten

Eskualdeko herrietan, Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin, berbarako, herritarak zein udalak sareak antolatu ditue adinekoai eta behar daben guztia laguntza emoteko. Gure eremukoak herri txikiak dira danak, eta horrek bentaja batzuk daukaz. "Bedian lehenengo egunetik hasi ginan edadeko jenteagaz harremanetan jartzen. Erroldatik 65 urtetik gorakoen zerrrendea hartu, banan-banan errepasau nor dagoan familia gehiagokaz edo bakarrik, eta banan-banan deitu eutsen alkateak eta zinegotziak, bakarrik edo egoera ahulagoan egon leitekezanai. Guztira 70 familia inguru izan ziran. Erosketak egiteko zerbitzua eskaini jakien, Gurutze Gorriak bideratutako zerbitzuaren bitartez" azaldu deusie BEGITURI udaletik. Zelan dagozan jakiteko lantzean behin deitzea be eskaini jakie Bediako edadekoai.

Igorren, boluntario sarea sortu eta segurtasun neurrietarako triajea eta protokoloa sortu dabez.

Zaintza lanen garrantzia argi geratu bada be osasun krisi honetan, lan garrantzitsu honetako beharginak, etxeko eta zainketa langileak, zaurgarrienen artean dagoz, lan-baldintza eskasak eta gizartearen errekonozimendu barik. Euren lanagaitik kutsatuta izateko arrisku handian dagoz, eta gainera, lanbide honetako erregimen bereziak langabezia sari barik ixten ditu langileak eta ez deutsez lan arriskuak errekonoziduten, beste gauza batzuen artean. Holan, konfinamentuagaz asko ezin dira urten lan egiten daben etxeetatik, edo soldata barik etxera bialdu dabezala salatuten dabez beste batzuek.

Eskolak eta janlekuak zarratuta

Eskolai jagokienean, eskola eta ikastetxe guztiak zarratuta dagoz *sine die*. Ikasleak etxean ikasi behar dabe. Gehienak eskolak internet bidez jasoten dabez, baina etxe guztietan ez dago internetik. Horren eragina apaltze aldera, ETB eskolako edukiak emoten hasi da. Save the Children, umeen alde behar egiten dauan GBEk adierazo dau egoera ekonomiko txarrean dagozan umeak izango dirala eskolak zarratuta gehien sufriduko dabenak. Izan be, ume horreek atzean geratzeko arriskua daukie, internet barik, eskola edukietara heldu ezinda.

Baina hori ez da arrisku bakarra. Eskolako janlekuko jatordua kenduta, ume batzuek ez daukie elikadura nahikoa. Horrezaz jabetuta gizarte zerbitzuak eskolaz ipini dira kontaktuan eta Igorren, berbarako, zailtasunak dituen familiak identifikatu eta erosketak egiten deutseaz.

Unibersidadean sartzeko probak be atzeratu egin dira eta garagarri-laren 6tik 8ra bitartean egingo dira Bizkaian.

Industria be geratuta

Alarma egoerea hasi zanetik igarri zan industriaren produktzioan. Izan be, hainbat enpresak zarratu egin ebezan ateak, bertako beharginen osasuna ezin zala bermatu eretxita. Hori areagotu egin zan, martiaren 29ko dekretuagaz.

COVID-19a hedatzen ez jarraituteko jardura ekonomiko guztia ez da eten. Telelana egin daikien enpresak jarraituten dabe euren aktibidadea etxeetatik. Baina makina handiak erabilten dituen enpresen kasuan ezinezkoa da. Eusko Jaurlaritzak aholkularitza zerbitzu bat ipini dau autonomoai eta enpresa txiki eta ertainai telelana errazteko, Inplantalariak ize-nekoa. Zerbitzua erabilteko 902 702 142 telefonora deitu edo info@spri.eus helbidera idatzi behar da.

Hurrengo egunetan, gure eskualdean be aldi baterako lan erregulazioak espero dituela azaldu deusie BEGITURI konsultautako sindikatuak. Alarma egoeran langileak kaleratzeko neurriak gogortu ditu Espainiako Gobernuak, baina horrek ez ditu kaleratzeak saihestuko. Obrak be gelditu arazo ditu 10/2020 dekretuak.

Komertzio txikiak eta baserritarrak

Tabernak, hotelak eta denda txiki asko zarratuta dagoz edo ordutegia murriztuta daukie, noz arte iraungo dauan egoereak jakin barik eta batek baino gehiagok arazoak izango ditu krisia amaituten danean, zabaldu ahal izateko. Batzuentzat, bitartean behintzat, telelana izan daiteke aukera bat eta jentearen enkarguak telefonoz edo WhatsAppen jaso eta prestatuten ditue adostutako moduan eta orduan bananduteko.

Igorreko Udala, merkataria alkarreagaz ipini da kontaktuan eta komertzio txikiak laguntzak emotea aztertzen dabil. Baita baserritarren azokak mantentzeko aukerak eta moduak.

Konfinamentua leuntzeko ekimenak

Etetik urten ezinda, herritarak balkoietan eta sare sozialen bitartez kontaktua mantentzen saiatzen dira. Bizi gura izateko hiru gauza behar ei dira: maitatzeko nonor, zeregina eta etorkizunerako proiekturen bat. Etxe barruan egon beharreko ordu eta egun luzeetan zeregina eukiteko, ehundaka ekimen sortu dira Arratia, Ubide eta Zeberion.

Bediako Udal Liburutegiak, e-liburutegiaren erabilera bultzatzeaz gainera, konfinamentu egoereak eragindako sentimentu eta emozinoak partekatzea bultzatu gura ditu herritarak, kontakizun, gutun, marrazki edo gainontzeko lan artistikoen bidez. Lanok liburutegia@bedia.biz helbidera bialdu behar dira eta konfinamentua amaitutakoan erakusketea egiteko asmoa daukie. Ludotekatik, barriz, astero lau ekintza proposatzen ditue: familiar egiteko jolasak, eskulan baten proposamena eta sukaldaritzako

errezeta bi: bata umeakaz egitekoa eta bestea nagusientzat.

Antzeko ekimena ipini dau mar-txan Dimesten-ek Dimako herri hezitzaileak be. Konfinamentua indarrean sartu eta segiduan, egunero etxean egiteko ekintza bat proposatuten hasi zan. Ekintzak edade guztietako jenteak egiteko modukoak dira eta partaideak ekintzaren argazki eta bideoak dimedimesten@gmail.com helbidera bialtzen ditue. Proposamenen artean, etxean plastilinea egitea, roskillak, terrazetan umeentzako jaia antolatzea eta berba batzuk emonda istorio bat sortzea egin dira.

Lemoako Udalak be, sare sozialen bidez ekimena ipini dau mar-txan eta egoereari aurre egiteko asmoz, umeakaz etxean egiteko hainbat ekintza prestatu ditu.

Alkarteak, norbanakoak, lagunak, rock bandak edo BEGITUK berak be, sormenerako hain egokia dan egoeran sortutako artelan handiak zein txikiak argitara atera gura dabez.

Adibide moduan, Arantzarte Dantza Taldeak, *Aita San Migel* estilo librean egitea, grabetea eta arantzarte@gmail.com-era bialdutea

proposatu eban eta sare sozialetan ipinten ditu bideoak ikusgai. Youtuberaren bitartez Ismael Pereiragaz zumba egin daiteke etxean be.

Zeinke rock taldeak, bere bideoak egiteko jenteari euren kantu baten play-back-a egin eta zeinkerock@gmail.com helbidera bialtzeko eskakizuna egin eutsan. Edo BEGITUK mar-txan ipinitako Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea edo Begitxio mezuen espazioa. Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak be Argazki Lehiaketea ipini dau mar-txan, "#gorbeiazureetxean" izenburupean. Gorbeiaz zerikusia daukan argazki bat topau behar da eta turismo@gorbeialdea.com helbidera bialdu, azalpen labur bat egaz, apirilaren 6ra arte. Gorbeiaiko produktuen sorta bat eroango dau irabazleak.

Ludikoak bakarrik edo aldarria egiteko izan daitezke ekintzok. Holan, martiaren 21ean, Lemoako Udalak, errazkeriaren kontrako egunear, aniztasun kulturalaren aldeko aldarria mantentzeko herritarri argazki bat atera eta horretarako sortutako helbide elektronikoa batera bialtzeko eskatu eutsen.

Balkoietan, kontzertuak be emoten ditue Arratiako musikagileak, eta umeak olgetako, kirola egiteko edo jantzaleku bihurtu dira. Lan egiteko leku aproposak be badira balkoia eguzkia egiten dauanean. Eta errebindikazio lekua. Bertan egiten dira-eta, lapiko joteak protesta egiteko edo txaloak solidari-dadea adierazoteko.

Aurrera begira

Igorreko Jai Batzordeak jakin arazo dau, alarma egoerea bagilerarte luzatutea espero ez dabenez, jaiak "betiko mar-txan eta normaltasun osoz" antolatzen jarraituten dabela. "Lantalde desbardinak lanean jarraitzen dabe eta apurka-apurka jaietako programazioa osotuz doa" dinoe. Dana dala, "igorretarren osasuna mantentzeko" lehentasun-tzat daukiela eta egoereak halan eskatuko baleu, ez dabe baztertzen "jaien ohiko formatua moldatzea edo neurri bereziak hartzea".

Udalekuak be, izen emotea zabalik daukie, Dimetaleroak alkarreagaz jarraituten dau jaialdia antolatuten... Izan be, adituen ustez, alarma egoerea ez da betiko izango.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI EZ

KRISI EGOERA HONETAN, INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN ANDRANTZAKO ZERBITZUAK:

GIZARTE ZERBITZUAK

ARRETA PSIKOLOGIKOA

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

94 631 17 17 // 688 62 73 93

ORDUTEGIA 8:00 - 15:00

***Arreta telefonikoa emango da**

Larrialdiak -112-
-900 840 111-
24 ordukoa eta anonimoa

Arratiako Udalen Mankomunitatea
BARONTASUN ARLOA
AREA DE IGUALDAD

SOKATIREA

Erredakzinoa

Noz hasi zinan sokatiran? Eta Badaiotz taldean?

2003ko urri lehenengoan hasi nintzan bai sokatiran eta bai Badaiotz taldean, dana bat izan zan. Institutu sasoia amaitu arte areto-futboleko ibili nintzan Igorreko eskolako eta institutuko taldeakaz. Institutuko atzen urtean futboleko hasi nintzan Usansoloko Umore Ona taldean eta bertan pare bat denporaldi egin nebazan. Ordu-rako Gasteizen Giza Elikadura eta Dietetika diplomatura ikasten hasia nintzan eta bertan biziten nengoanez, ezin izaten neban Usansoloko taldeagaz entrenau eta ondorioz futbola itxi behar izan neban. 2003 urtea izan zan.

Uda haretan, Martina Iturriozek, Lemoakoak, trontzan beragaz egitea proposatu eustan eta nik baiezkoa emon neutsan. Orduan sartu nintzan herri kiroleran. Bizkaiko Txapelketea jokatu zanean, irabazi neban lehenengo, Ion Lapazaran ezetu neban bertan eta Gasteizen ikasten nengoala esan neutsanean konbidau eustan sokatiran hastera. "Ekarri txapin pare bat eta astelehenean etxongo zaitugu 20:00etan Abetxukoko frontoi zaharrean". Hori esan eta nik bete eta bertara joan nintzan eta... gaur arte!

Zenbat aldiz izan zarie munduko txapeldunak?

Ordurako Badaiotz bazan munduko txapeldun, 2002an Slagharren herrian (Herbeereak) pisu bietan (520 eta 480 kiloan) irabazita. Eta horreek biak kontuan hartuta, gero beste 6 irabazi izan doguz, ni taldean nagoanetik hona, beste 6 urre irabazi doguz:

2 Glasgow (Eskozia) 2004an, 520 eta 480 kiloko kategorietan.

1 Faenza (Italia) 2008an, 500 kiloko kategorian (ordurako pisu kategorian aldatu eben).

1 Perth (Eskozia) 2012an, 500 kilokoan.

2 aurtengo Letterkenny (Irlanda), 540 eta 500 kiloko kategorietan.

Bereziki garrantzitsuak izan dira niretzat 2012 eta 2020ko pisu txikiko urreak (500 kilokoak) profesionalak diran Taiwaneko taldeari (Txina-Taipei) irabazita lortu izan doguzalako. Esan behar da, Badaiotz dala talde honeri azken 10 urteetan final baten irabazteko gai izan dan mendebaldeko talde bakarra.

Guztira talde mailan beraz, 8 urre pilotzen doguz munduko txapelketetan.

Munduko txapelketak diralata, munduko leku askotan ibili zara, orduan.

Egia da sokatirearen atxikiagaz leku asko ezetuteko aukerea izan dogula emoten dauala baina be-

Ruth Linaza: "Taiwanen oso ezagunak gara Badaiotzekoak"

Kontrakoa dirudian arren, sano ezezaguna da sokatirea gurean. Horren adierazgarri Badaiotz sokatira taldea: 2002tik hona, munduko txapelketetan zortzi urre lortu arren, inok gitxi ezetuten dau. Bertan dago, 2003tik, Ruth Linaza Beobide, Igorren jai eta ume-umetatik Lemoan bizi dana. Aurtengo Munduko Txapelketan lau domina lortu ditu: Badaiotz taldeagaz bi eta Euskal Selekzinoagaz beste bi. Beste herri kirol askotan be ibiltan da Linaza eta lanbidez, urte biko umeen gelan, hezitzaile.



netan ez da egia. Leku ugarian egon garala argi dago baina txapelketa horreen dinamikeagaitik eta jokatzan diran datakaitik, zezeileko atzenengo astean normalean, ez dogu izaten lekuak ikusteko aukerarik. Lanegunak izaten dira eta ondorioz, dirua galdu behar izaten dogu talde moduan edo Basque Country ordezkatu behar dogunean. Eta horregaitik egun justoak joaten gara mundialetara goazenean.

Normalean eguaztenetan helztean gara txapelketea jokatu dan herrira. Eguaztenean dogulako pisu kontrola. Ondo jan eta hidratau ostean deskantsetan joaten gara hotelera. Eguen, bariku, zapatu eta domekan, pisu bakoetako txapelketak eukiten doguz. Mundialeko egunen laburpena hau izaten da: esnatu, gosaldutxapelketa gunera joan eta tiratu, hotelera buelta artezean, afaldu eta lotara. Turismoa egiteko aukerak ez dogu eukiten.

Behin Taiwanera joan zinien pelikula bat grabetan, ezta?

Aukera zoragarri bat subertau jakun 2012an. Orduko urtean

Taiwaneri irabazi geuntsan eta bertara pelikula bat grabetan konbidau gintuen. Sinistu ezinik egon ginan hasikeran, surrealista zalako baina bertako sokatirearen islada da.

Taiwanen sokatirea profesional moduan egiten dabe, ikasleak sokatiratik bizi dira kirol beka batzuen bidez, eta kirol nazionala da han. Produktora batek sokatiralari baten bizimodua pelikula batera eroatea ebatzi eban eta gu pelikulako protagonistak izan ginan. Pelikuleak *Step Back to Glory* dauka izena eta Taiwanen grabau genduan. Orduan herrialde hori apurtxo bat ezetuteko aukerea izan genduan eta hango sokatira eredu be bai. Oso polita izan zan. Txapelketa batera joan ginanean, hango tiralariak gugaz argazkiak etenbarik atera gura ebezan-eta; idoloak bagina moduan! Eta gu harrirtuta eta pozik.

Han guztiz ezagunak ginan tiralari moduan. Eta hemen ba hori... auzokoak be ez gaitue ezetuten ia. **Taiwanen eta Txinan sokatireak zale asko ditu. Zein beste herri-tan dauka kirol honek hemen**

baino konsiderazio handiagoa?

Hegoafrika, Holanda, Eskozia, Irlanda, Ingalaterra, Suedia, Suitza, Belgika eta Alemania dira potentzia handienak, Euskal Herriagaz batera.

Beste herri kirol batzuetan be ibiltan zara. Zeintzuetan? Erakusketetan bakarrik ala konpetidu be egiten dozu?

Sokatiran daukaguzan gastu gutxi aurre egiteko, taldeak herri kirol erakustaldiak egiten ditu: lasto altxatzen, ingudean, zaku karreran, txorokil batzean, txinga eroaten, trontzan eta sokatiran ibiltan gara.

Gero txapelketetan, ingudean, zaku lasterketan, trontzan eta igaz, Arabako (bertan daukat fitxea eta) Andrazkoen Lehenengo Lasto Altxatze Txapelketea egin genduan. Udan izaten dirana lez, sokatirako denporaldiari begira ondo jatorta, sasoi mantenduteko. Sano gustura egia esan eta pozik.

Zeintzuk dira zure proiektuak, planak eta ilusinoak?

Kirol arloan, adinean gora goazanez ba jente gaztea sokatirara hurbildutea lortu eta sokatiran jente gehiago ibiltea bultzatzea. Eskola kirolean herri kirolak sartu

beharra ikusten dot. Harrobia landu behar dogu.

Beste aldetik, sokatireak eta herri kirolak daukiezan aurreretiak apurtu eta andra kirolariak plazan errespetetea lortzea gurako neuke. Bagoaz bidea egiten astiro-astiro baina oindino bardintasunetik urrun dago gure egoera, zorixarrez.

Eta kirol arlo personalean erronka bat, Euskal Herriko Lasto Altxatze Lehen Txapelketa ofiziala antolatzeko gai izatea, aurtan bada hobeto.

Ametza... Euskal Herri moduan, nazino mailan Munduko Txapelketea irabaztea, taldean irabaztea zer dan badakigu baina koska bat gorago egin behar dogu batez be baliabide material eta personal gitxi daukaguzalako. Erakundeen babesa behar dogu, ez haizeak eroaten dauzan berbak. Selekzino ofizial bakarra gara eta oindino Euskal Ordezkarri moduan joateko, taldeok dana gure boltsikoetatik ordaintzen dogu eta Selekzinoaren erropea "konsignan" dogu, ez da gure gurea. Lotsagarria.

Zer emon deutsu zuri sokatireak? Uste dozu bultzatu egin behar dala? Zergaitik? Zer eskatuko zeunskie horretarako instituzinoai?

Euskal Herriko txapel bat eta Munduko Txapelketa bat irabaztea ikaragarria izan da niretzat. Kirolari moduan lortu leiteken handienetakoa lortu dot eta hori... ezin daiteke berba batzuk bakarrik azaldu.

Persona moduan, balore asko bereganatu dodaz taldean gainera: lantaldearen garrantzia, esfortzu personalarena, sakrifizioarena, laguntasuna, familia antzeko bat, norberarengan sinistuteko gaitasuna... Zer nazan ezin da ulertu sokatirea barik, beste persona oso desbardin bat izango nintzan ziurrenik.

Duda barik bultzatu egin behar da sokatirea. Batez be eskaintzen dauzan balore horreekaitik, taldeko kirol guztietan legez.

Eta erakundeai, lehenengo ta behin aitortza bat eskatuko neuskie. Sokatireak herri honeri kirol arloan emon deutsana azken 20 urteetan... nik uste beste kirol gitxi emon deutsala. Herri bezala munduan Euskal Herria ezetuten emon dogu. Nor garan, zer garan eta nondik gatzozan. Eta hori asko da.

Maite dogulako egiten dogu tira baina gehiago behar dogu: baliabideak eta instituzino publikoen babesa honeri denpora gehiago eskaintzeko.

Guk sokatiran egiteko, herri hau atzerrian ezetuten emoteko, eta helztean garan lekura helzteko ezinbestekoa da etxean daukaguzan persona guztien babesa. Guraso, bikotekide, seme-alaba, lagun, familia eta inguruko horreek guztiorrek barik, ezin geintez heldu garan lekura heldu. Eurentzako aitortzea eta bihotz-bihotzeko esker ona.

AZKOREA

Erredakzioa

Txikitatik hasi zinan herri kiroletan. Zeintzuk izan dira egin dozuazanak? Zein edadegaz bakoitza?

Beti ibili izan naz herri kiroletan, hamabost urte bete arte, dana probatu dot. Aita beti ibili da plazaz plaza eta berari jarraituaz ibili gara hara eta hona bost urte mokotik hasita. Bera trontzan edo segan ibiltzen zan bitartean ni plazako bazter baten berari begira ibili naz.

Beti gustatu izan jataz herri kirolak, danak. Trontzea eta sega 14 bat urtegeaz hasi nintzan praktikatzen. 15 urtegeaz jokatu neban lehen Trontza Txapelketea Esti Etxebarria Areatzakoagaz. Bere ahiztak, Nerea eta Naiara Etxebarriagaz batera. Saltsa hori asko gustetan hasi jatan eta 16 urtegeaz segeari ekin neutsan. Txapelketa baterako deitu euskuen eta neska parte hartzean ebela esan eustien, birritan pentsau barik hasi nintzan entrenetan.

Hainbeste urtetan segan eta trontzan txapelketa pilo bat jokatu dodaz: Bizkaikoak, Euskal Herrikoak eta Europakoak. Eta apustu baten ondorioz azkoreari ekin neutsan.

Herri kirol askotan irabazi dozu txapela. Zenbat txapel daukazuz etxean? Zein kirolak?

Txapel batzuk badaukadaz, bai. Trontzan, Bizkaiko Misto Txapelketakoa nire lehengusu Igor Astondoagaz ateratakoa 2013an; azkoran Oinbiko Txapelketakoa 2019koa; Euskal Herriko Pentatloi Txapelketakoa 2019koa, eta aurtengoa, garrantzitsuenak, Urrezko Aizkora 2020, berbarako. **Oin azkoran bakarrik ibiltzen zara ala beste kirolen baten be bai?**

Bai gehien azkoran entrenetan nabil, buru belarri nabil prestatzen azkorarako.

Nahiz eta gagozan egoeran egon, etxean ariketa eta entrenamenduak bardin-bardin egiten dodaz. Baserrian suerte hori daukagu.

Irati Astondoa: "Suerte hori daukagu baserrian: entrenetako dana daukat bertan"



Banakako Urrezko Aizkora Txapelketea irabazi dau Irati Astondoa, baina lehendik be, ezaguna zan zeanuriztarra, segan eta trontzan batez be. Izan be, 23 urte aspikoetan Euskal Herriko sega txapelduna izan zan 2011n, berbarako. Oin azkoran zentrauta, Irati Astondoa Zuluaga Euskal Herriko Txapelketeari begira entrenetan dabil.

Segan be badaukat aterateko asmoa erakustaldiren bat egiteko. Baina lasaiago.

Zein da Irati Astondoaren egunerokotasuna? Zer egiten dozu egun normal baten? COVID-19ak aldatu dau egunerokotasun hori? Zertan?

Ariketa fisikoak egunero egiten dodaz etxean; ordubete edo ordu eta erdi.

Azkoran egiten dot, suerte hori daukadalako baserrian: entrenetako dana daukat bertan. Dana dala, egoerea dala-eta, ez nabil entrenatzaileagaz bueltaka, baina

berak bidaltzen deustaz entrenamenduak etxean egiteko.

Urrezko Azkoran 4 azkolarri ibili zinien. Zutaz aparte, Ixaso Onsalo, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo. Zelangoa da bakoitza azkoran eta zelangoa da zuen arteko hartu-emonena?

Hartu-emonena oso-oso ona izan da beti. Plazan aurkari baina bestela lagunak gara.

Itxasogaz harreman lotua daukat eta egunero daukagu batzuk bestearen barri. Azkoran ez da asko ibili azkenaldian, trontzan

ibiltzen dalako punta-puntan.

Nerea oso indartsua da eta bera da momentu honetan اندازko azkolaririk onena eta behar laburretan ez daukagu bere aurka zereginik gehienetan.

Maika aldiz kirolari osoa da, dannerako balio dau. Bere adina dala eta, aurten apur bat bajatu egin dala esango neuke, baina kirol guztietan da ona.

Zeintzuk dira zure proiektuak, planak eta ilusinoak? Azaldu apur bat.

Ba aurten txapelketa bat daukagu, Euskal Herrikoa, eta oso garran-

tzitsua izango litzateke niretzat irabaztea. Horretarako prestatzen nabil.

Udan be Boisera joango gara, euskal jaira, azkoran; eta jaialdi horretan parte hartzeako oso gogotsu nago.

Herri kirola ez dan beste kirolik gustetan jatzu? Praktikau dozu inoz?

Bai eskupelotea sano gustetan jata; txikitik hori izan zan nire lehenengo kirola eta bertan txapel bat irabazita be badaukat. Momentu haretan Ainhoa Mendia eta biok ginan neska bakarrak eskupelotan eta ezin genduan mutlakaz lehiatu. Oin Emakume Master Cup dago eta inoz herri kirolak itxi ezker, zergaitik ez eskupelotara bueltatu?

Zelan ikusten dozu zeure burua 10 urte barru? Bizimodu herri kiroletatik aterata ala oin bezain ezinezkoa izaten jarraituko dauala uste dozu?

Ezta pentsau be ez! Neure burua lanean ikusten dot, beste guztien antzean, eta fisikoki ondo banago herri kiroletan be bai.

Zer emon deustu zuri herri kirolak? Uste dozu bultzatu egin behar dala?

Niri bizitzan herri kirolak dana emon deusta: lagunak, ilusinoak, ametsak... eta oindino lortu ez dodan arren baina horretan nabilen neure buruan sinistuteko indarra.

Biziteko era bat da.

Bultzatu egin behar da, duda barik, baina onartzen dot zaila dala zeretik hastea. Herri kiroletan jarduteak lan handia daukalako atzetik, eta materiala karua da eta lortzeako zaila. Baina ilusinoagaz dana egin leiteke. Gu laguntzeko prest gagoz beti.

Instituzinoai gauza asko eskatuko neuskiozan; izan be, kirol askori dirutzea emoten jakie laguntzeko eta guri ezer be ez. Hori bai herriko jaietan euskal kulturearen letreroaren azpian egoten dira herri kirolak, batzuen konzientzia garbitzeko, eta urte guztian gugaz akordau be ez. Eta ba, akordetan diranai ezin ezer esan. Badagoz txarragoak be!

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

ALKARRIZKETEAK

Karlos Aretxabaleta: "Rugengeri eskualdean bizi ginan, Nemba izeneko herrixkan"

Ruandan jaio eta Getxon hazi bazan be, guztiz arratiartuta dago Karlos Aretxabaleta. Magisteritza eta Filologia ikasketak egin eban eta oin Bedian bizi da eta Arrigorriagako Institutuan egiten dau behar.

Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan Arratiako onenari saria jaso eban Aretxabaletak eta kazetaritzari jagokonean, kolaborazioak egiten ditu hainbat agerkaritan. Arratiako noka, andrazkoen hitanoa, errekueretako ekimen baten be badihardu.

Erredakzinoa**Ruandan jaio zinan, ezta? Ruandatik Bediara, bizitzak ezustekoak dakar.**

Bai, 1990eko maiatzaren 16an jaio nintzan Ruandan (Afrika) Remera Rukoma herrian, Kigali uriburutik oso hur. Gurasoak, osasun langileak izanik (aita medikua eta ama erizaina), gazterik joan ziran Afrikara -26-27 urtegar- Medicus Mundi izeneko gobernu kanpoko erakundeagaz. Atoan moldatu ziran euren bizimodu barri horretara, eta handik eta urte gitxira ni jaio nintzan. Uriburutik hur jaio nintzan arren, gu mendi puntan bizi ginan, Rugengeri eskualdean, Nemba izeneko herrixkan, landa eremuan. Aita ospitaleko zuzendaria eta medikua zan, eta ama erizaina, emagina, anestesista... arlo askotan jardun zan nire ama; ospitalean ez ezik baserri eta inguruko etxaldeetan be.

Zoritxarrez, 1990eko urrian, Ruandako Fronte Abertzaleak (FRP) gerra deklaratu eutsan orduko gobernuari, eta gure bizitzak hankaz gora jarri ziran heltzear egoan gatazkearen ondorioz.

Ama eta biok saiatu ginan arren, 1991 urte amaiera aldera behinbetiko etorri ginan Euskal Herrira, eta ordutik ez gara itzuli. Aita handik hara ibili zan, ospitalea kudeatu guran, errefujiadu eremuak montetan Zaire inguruan; baina atzenez, 1994an Ruandako tutsi eta hutuen sarraskia gertatu zanean, (100 egunetan miloe bat hildako) alde egin behar izan eban. Oztazta lortu be. Geroztik Euskal Herrian bizi izan gara.

Gaur egun, Bedian bizi naz, Algortan hasi eta hezi nazan arren. Tira, Leioan ikasi neban, eta hangoxa dot lagun talde handia. Ikasketak jagokienez, Magisteritza ikasi neban Bilbon, eta handik eta gitxira Euskal Filologia. Orduan ezetu neban nire bikotekidea, Arratiakoa da bera, Bediakoa. Orduantxe kargatu nintzan oso-osoan Arratiako bailareagaz. Euskal Filologian Arratiako lagun onak ezetu banebazan be, bidetik lagun asko egin dodaz,



txoko ederrak ezetu, baita parranda itzelak bota be. Bada, pozik esan neike Arratiakotzat daukadala neure burua.

Lanbideari jagokonean, irakaskuntzeari heldu gura neutsan hasieratik. Oin urte batzuk Bilboko Gabriel Aresti euskaltegian, eta gerora, oposaketak prestatu eta Bigarren Hezkuntzan euskera irakastele plazea lortu neban. Gaur egun, Arrigorriaga BHI nabil.

Literaturan be egin dozu ibilbidetxo bat. Hitz Margotuk poesia liburuan parte hartu zenuen beste idazle batez batera.

Liburua, berez, hiru lagun artean sortu genduan; bata marrazkilaria eta beste biak idazleak. Guztira 40 poema argitaratu genduzan, hogeina. Printzipioz, ez genduan erispide berezirik jarraitu liburua idazteko; ordurako *euskalpoetry.wordpress.com* atarian idatzita eta argitaratuta geunkazan poemak artean aukeraketa bat egin genduan. Gai eta estilo zeharo desbardinak jorratu genduzan. Mikel Mansorenak -beste idazlea- oso landuak eta neurtuak ziran, zorrotzak eta zoliak esango neuke; nireak, ostera, literalagoak, librea-goak, metrika bakoak gehienetan. Gaiak jagokienez, danetarik landu genduan, ha-ta guzti be, aitortu behar dot nire poemak "iluntxoak"

ziralak; Sarrionandia eta Montoiaren zale amorratu naz.

Gaur egun, ez dot apenas poemarik idazten, denpora batez baztertu dot. Dana dala, badaukat beste poemario bat, beste 40 bat olerkigaz. Inoz lehiaketaren batera aurkeztu dot, baina ez deusat denpora askorik eskaini egia esan. Bestela, badaukat proiektu bat eskuarte, bai, *Hitz Margotuk* liburuko marrazkiak egin ebanan lagunagaz, Jon Amorrortugaz. Poema bakar baten inguruan sortu dogun proiektua da, baina, oingoan, marrazkien kalidadeak eta sakontasunak daukie pisu gehien... ea aurten argitaratzerik daukagun.

Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan Arratiako ipuin onenari saria jaso zenuen. Ze beste lan daukazu ipuingintzan? Eta kazetaritzan?

Ipuingintzan ezer gitxi. Ha-ta guzti be, Gaztezulo aldizkariagaz kolaboretan hasi naz, eta lau ipuin erotiko idazteko aukerea eskaini deuste; apirlean lehenengo!

Argia aldizkarian hilero idazten dot eretxi artikuluren bat. BEGITU hasi berria naz, eta ohoretzat hartu dot... bailarara heldu nintzantetik, "inbidiaz" irakurten nebazan hemengo gazteen eretxiak, eta ekarpenak. Bestalde, Gara eta Berria egunkarietara zuzendari gutun nahikotxo bidaltzen dodaz eta ko-

laborazino txikiren bat be egin dot.

Proiekturik be badaukat; Igar-tza Sarira aurkeztu gurako neuke neure burua. Horretan nabil, baina auskalo. Ez dakit lar ez ete dan niretzat...

Arratiako nokaren inguruan ikerketak egin eta berbaldiak emon ostean, nokako ikastaroa antolatu zenuen Igorren. Eta oker ez banago, astean behin batzean dira hainbat lagun praktikatuko. Azaldu ekimen hori.

Nokako ikastaroa Arratiako gazte talde batek proposatu eban. Euren da meritua guztiz. Konbitea lagun baten bidez heldu jatan eta sano pozik hartu neban enkargua. Hau jakindakoan, beste euskaltzale amorratu batera proposatu neutsan lan honetan bidelagun izatea; Joseba Sanchezeri (Jaik musika taldeko abeslaria), hain zuzen. Lehenengo ikastaroa egin ostean, balorazino txikia egin genduan Josebak eta biok, eta uste genduan labor geratu jakula; hau da, azalpen nahikotxo emon genduzan, eta dinamikaren bat bideratu be, baina beharbada ez genduan guz-

tiz lortu "ahora ekartea". Horixe da, nire ustez, helburu nagusia, ahora ekartea eta ahal dan neurrian berbiztea.

Bueltaka ibili ostean, WhatsApp talde bat sortu genduan nokako jarduna errazteko. Dagoeneko 30 personek osatzen dabe taldea, neskak zein mutilak, eta hantemenka ariketak eta alkarrizketak bideratzen saiatzen gara. Bestetik, talde irekia da oso-osoan; Ateak zabalik jaozana! Hurrengo pausu logikoa Berba-lagun formatuko geldialdia egitea da, konplizidatzen irabazteko, lotsak alde batera itzeko, eta neskak egunerokotasunean noka ahora ekarteko.

Zoritxarrez, birusaren gorabeheareguz atzeratu behar izan dogu. Bitartean ariketatxoak bidaltzen jarraituko dogu.

Zelan eragin dabe COVID-19a ez hedatzeko hartutako neurriak zure egunerokotasunean?

Ziur nago egoera barri honek, beste hamaika konturi heltzeako aukerea emongo deuskula danori (ortua, liburuak, familia, umeak, filmak...); etxean geratzen garanoi bai, sikiera.

DIMETAL

Dimetalen joko daben hogeta hamazazpi taldeak iragarri dabez**Erredakzinoa**

Urri lehenengoaren 25 eta 26ko Dimetalfest-en joteko baiezkota emon daben beste zazpi talderen izenak emon dauz jakitera Dimetaleroak Kultur Elkarteak eta honeekaz osotuten da kartela. Guztira 37 talde dira. Lehendik iragarritakoak, Pi L.T., Hira, The Capaces, Estampida, Kartzarot, Revolta Permanent eta Unholy Covers gehitu dira.

Estiloak jagokienez, Estampidak thrash metala egiten dau; Katalunako The Capaces-ek, punk and rolla; Kartzarotek heavy metala; Revolta Permanentek hip hop elektronikoa; Hira taldeak, hard rock melodikoa, eta beti txalotzak diran hard rock eta heavy metaleko klasi-koen tributoak egingo dituen Unholy Covers bermeotarrak, Diman joko dabela iragarri dabe. Pi L.T. Mungiako rock taldea be Diman egotekoa da. Kontzertu bakarra izango da Dimetalean eskainiko dabena, urteak geldirik egon ostean.

Hemeretzi talde debalde, hamazortzi ordainduta

Karteleko taldeen %51 debalde da. Ordaindu beharreko eremura

sartu ahal izateko astegoieneko txartelak eta eguneko sarrerak salgai dagoz jaialdiaren web orrian.

Hau da, 19 talderen kontzertuak debalde dira eta beste 18renak ordainduta.

Barikuan, urri lehenengoaren 25ean, hamabost talde izango dira oholtza gainean: Reno Renardo, Sangre, Valkyria, Power Scream, Crucifucked, Blast Wave, Cult Misery eta Mutilated Judge doban; eta Kartzarot, Hira, Ehun Kilo, Asgarth, Akelarre, Pi L.T. eta Idi Bihotz ordaindu beharreko eremuan.

Hurrengo egunean, zapatuan, beste hogeta biren txandea izango da: Elizabeltz, 4 Villains, W.A.B., Unholy Covers, Fetitxe, Sealed Room, Ferosz, Knives, Estampida, Conflict Noise eta Bullets of Misery debalde; eta ostera, Etor-kizun Beltza, Revolta Permanent, The Capaces, Hilotz, Niña Coyote eta Chico Tornado, Numen, Eraso!, Killus, Cobra, Rat-Zinger eta Sociedad Alkoholika ikusi ahal izateko sarrerea behar izango da.

Jaialdi osorako txartelak 38,50 euro balioko dau aurrez eta 44 euro bertan; eguneko sarrerak barriz, 22 euro aurrez eta 27,50 euro bertan.

ALKARRIZKETE

Hamaika urte intenso kondensau ditu Estankonak *Moskito* poema liburuan

Igor Estankonak martiaren 12an egin eban Donostian, *Moskito* bere bosgarren poema liburuen aurkezpena. Justu-justu liburu zan koronabirasuaren konfinamentutik. Aspaldi joan zan Tolosara biziten Estankona, baina Artean jaio eta hazi zan, eta BEGITU eta Zertu Kultur Elkartearen sortzaileetako bat be bada. Ezagunak aspalditik, alkarrizketan noka egin deutso kazetari honeri. Egoera normalean, erregistroa aldatuta publikauko zan, baina konfinamentu sasoiaren, lagunak bisitetea be galazota dagoan aldi honetan, tratuera horrek emoten dauan epeltasun eta laguntasun giroa mantenidu gura izan dogu eta ez dogu aldatu. Behin-behineko eta ezohiko neurria izan da. Holan, lagunen arteko barriketaldiak, bitxi bihurtuteko arriskuan dagoan honetan, irakurleak holango bat irudikatuko daualakoan.

Erredakzioa

Izenburu bitxia. Zergaitik izen hori?

Galdera ona. Nik bañenkina... Titulu zabala dona, halako artegatasun bat sorrarazoten jona, eltxoa dona hain txikia eta arina, baina egin leiken kaltea hain handia izan lleikena... Dana dala gerogarrenean otu jatanan azalpen hau. Egia esan behar bajonat berbearen beraren durundua gustetan jatana, deklinau barik egoteak sortzean jona halako hustasun sentipen bat, hegakada baten modukoa.

Hamaika urte dozak hire azken poema liburua kaleratu hinduanetik. Moskito batzean diran poemak urte horreetan guztietan zehar idatzitakoak dozak? Zergaitik hainbeste denpora publikau barik?

Tantakadaka-tantakadaka bete dona edalontzia. Lantzean-lantzean poema bat idatzi eta gorde izan jonat. Lau ume jaio jakuzana etxean eta gura nahiz gura ez beste lehentasun batzuk ibili joguzana. Gero poema eskukada hori hartu eta findu egin jonat, kenduz-kenduz, poemearen arimea baino ez ixteko. Prozesua motela dona. 120 edo 140 orri be euki ahalko lleukezana *Moskitok*, baina 80 orritan jagozana kondensauta nire bizitzako hamaika urte sano intenso.

Tolosan bizi haz. Horrek eragina jeukak hire poesian?

Tolosartuta ñagona aspaldi, eta igarten dona. Artea niretzat Kuku-tza errekearen modukoa dona: gaintetik joana batzuetan, ostendu egiten dona beste batzuetan... Jaioterritik beste leku batera joatean konturatzen dona bat ez da-

goala jaioterririk. Gure laugarrena jaio zanean bere izenagaz jokatu otu jatanan liburua zabaltzen jonan zitea: "Orhiko txoriak Orhira nah./Niretzat hori da/Orhi eta zuok zaudeten lekua".

Gaiak jagokienean, "aitasunaz, bikoteaz, nazinoaz eta heriotzeaz" dok. Bajeuak ildoren bat? Zerk batzean jozak hain gai desbardinak poemak?

Estiloak batzean jozana. Poema horreek guztiorreek jagozana irakurleari opatuta: bakotzak ikusi behar jona, lainopean, zer dagoan. Leire Lopez Ziluaga Susa argitaletzeko editoreak azaldu jonan ederto. Berak badiñona dagozala liburuan euliak, txoriak, hegazkinak... baina ez moskitorik. Bere eretxian ausentzia horrek pista bat emoten jeuskuna irakurketarako: begi bistakoa ez dan hori be, egon, bajago-



na. Ez dona zuzenean aitatu behar. Zeharkako estilo horrek emoten jeutsana liburuari sabore berezi bat. Niri behinik behin halako poesia gustetan jatana irakurtea.

Erreferentzia asko dagoz. Zeintzuk dozak hire erreferenteak?

Nire erreferenteak aldatuz joazana. Liburu honetan ageri dona Ezra Pound, ageri dona Neil Young, pelikulak jagozana, Toni Kukoc saskibalo jokalaria... collage bat dona liburu, gauza askoren kondensazioa.

Seguruenik, liburuaren aurkezpena hainbat lekutan egitekoa izango hintzoan, baina alarma egoera hau dala-eta bertan behera geratuko zozan. Holan bada, non eta noz hintzoan aurkeztekoa? Non

aurkeztu dok? Arratian aurkezteko asmorik?

Donostian aurkeztu najonan presaren aurrean eta badiñonat: biharamunean mundua akabau zoan. Oin mundu horren ifrentzutik, internetetik, egin beharko dozana aurkezpenak.

COVID-19aren gaineko poemarik egin dok? Egitekotan nondik enfokauko heunkek?

Hurrengo esango ñeunkena: "Naturari egin genion lekua jan eta jan/eta gure burua ari ginen jaten".

COVID-19a edo bera ez zabaltzeko hartutako neurriak sortutako egoera eroaten lagunduten jok poesiak?

Nik liburuz bete jonat, badaezpada, mesanotxea.

DUNBA

Pastorala

Dimako Ugarana ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Ikasturte hasieran gure irakasleak, bosgarren eta seigarren mailakoai, galdetu euskuen prest egongo geintezkan pastoral bat prestatu eta antzezteko eta guk baietz esan genduan.

Idea hau Loraldia Eskolatik etorri jakun, eurak urtero bi eskolari emoten deustie aukerea eta ikasturte honetan Dimako eskolea aukeratu dabe. Loraldia Eskola horretako irakasle bat, Erika, izan da gure gidaria.

Pastorala berbea entzunda

bai, baina zer dan ez genkian oso ondo. Informazioa bilatu genduan eta hainbat gauza ikasi genduzan: antzerki bat dala baina bertsoz osotutako antzerki bat eta Euskal Herriko probintzia baten ospatzen dirala gehien bat, Zuberoan.

Gure lana aurrera eroateko gidoigilea eta bertsoigilea behar genduzan eta lan horretan Zefe eta Ibon ibili dira. Gure pastoralagaz erakutsi gura da naturea zaindu behar dala, dirua eta podereagaitik gure planetea hiltzen gabizala.

Pastoral guztietan moduan personajeen artean bi talde dagoz: onak eta txarrak. Onen artean personaje mitologikoak, Basajaun



Mari, Sugoi... Basandere protagonista izanik, eta herritarrak dagoz eta txarren artean jauntxoak, ehiztaria, alkatea... guztiak bertsoan egiten dabe. Antzezpene eta antzezteetatik aparte narratzaileak dagoz, honeek be bertsoen bidez aurkeztuten dabez pastoreko

atal desbardinak.

Lana danon artean burutu dogu, batzuk eszenografiagaz arduratu gara, beste batzuk jantzeagaz, beste batzuk jantziakaz, musikea...

Pastorala egitea helburu izanik hainbat eduki desbardin landu



doguz: Mitologia Diman, Dima herria, Arratia eskualdea, Euskal Herria... Zuberoara heldu arte.

Poz-pozik egon gara Bilboko Alondegian antzeztutako martiaren 27an, baina koronabirusa dala eta, momentuz, bertan behera gelditu da. Espero dogu bueltetan garanean egin ahal izatea, Bilbon ezin bada gure herrian behintzat.

AGENDEA

APRILAK 1
ARRATIA

Aprilaren 5era arte, Zaztaparrak Asti Taldearen udaleku itxietarako online izen emotea zabalik 2003 eta 2013 bitartean jaiotako umeentzat esteka honetan: <https://forms.gle/7EUuVbFwBpqeXB3A>. Udalekua Oionen izango da abuztuaren 3tik 14ra. Informazio gehiagorako zaztaparrakudalekuitxiak@gmail.com helbidera idatzi.

AEK-ko Berbalagun proiektuak antolatutako *Zer moduz etxealdia?* Kronika Lehiaketea martxan dago. Argazki, bideoz, idatziz, bertsoz edo marrazkiz zure berrogeialdiaren kronika egin eta arratia_berba@gmail.com helbidera edo 662 199 033 telefono zenbakira bialdu. Azken eguna apirilaren 20a. Onenak saritu egingo dabez.



Arratiako Osasun Zentroetan, Norbanakoen Babes Ekipoen faltan dagoz. Herritarren batek bere etxean soberan badaukaz maskarillak edo hidrogelak, Igorreko Osasun Zentrorara eroan leike edo udal laguntza zerbitzuetara edo herritarren sareetara deitu etxean jaso eta eroan dagiezan.

BEGITUK antolatutako Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea martxan. Argazkiak, bost gehienez, alarma egoera amaitu arte bialdu begitu@topagunea.com helbidera. Momentuaz gozaten gehien lagunduten dauan argazkiak saria izango dau: Garena jabetxean persona birentzako dastatze menua.

Argazki Lehiaketea "#gorbeiazureetxean" izenburupean. Topau Gorbeiaz zerikusia daukan argazki bat eta turismo@gorbeialdea.com helbidera bialdu, azalpen labur batez, apirilaren 6ra arte. Saria: Gorbeiazko produktuen sorta bat. Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak antolatuta.

AREATZA

Udal zerbitzua erosketak etxez etxe banatzeko. Udaletxera (646 567 836) 09:00-13:00 artean deitu behar da, eta

MG reggae taldeak *Ama sua* diskoa biniloan eta plataforma digitaletan kaleratuko dau

Aprilean kaleratzekoak dira MG taldekoak bandaren laugarren diskoa, *Ama sua* izenburupean. Bost kantu izango ditu eta biniloan aterako dabe. Diskoan, suaren sinbolismoa birjaiotza irudikatzen erabili dabe; hau da, zaharra erre behar dala barria jaio ahal izateko. Taldearen beraren historia be badana. Disko barri honetako kantu bi, *Akordetan zara* eta *Ama sua* Youtubean entzun daitezke daborduko.

2006an, institutuko lagun talde bat batu zan musika joteko. Orditik hona hainbat aldaketa izan dauz taldeak eta gaur egun hasikera haretako bi baino ez dira geratzen: Ander Josu Garigorta "Biser" (perkusiinoa) dimoztarra eta Aimar Fernandez "Zoro" (bajua eta abotsa) igorretarra. Tekladuak jotzen dauzan Iban Agirregoikoa handik urte pare batera sartu zan taldean eta taldean jarraituten dau. Nahiz eta momentu baten 10 partaide izatera ailegau ziran, momentu honetan 5 musikari osotuten dabe taldea. Aitatutakoez gainera, Erika Liqueste (saxoa eta zeharkako flautea) eta Jon Velasco (gitarra) dira oingo partaideak.

MGk hiru disko ditu kalean, *Materia Gris Banda* (2011), *MG Banda* (2014) eta *Hamelin* (2017). "Danak jamaikar doinuetara sano lotuta, nahiz eta denporeagaz reggae estilo sakonagoetara jo dogun. Disko bakotxean, sasoi bakotxean euki dogun giroa, errealidadea eta lantaldea igarten dira; izan be, album bakotxean musikari desbardinak euki doguz" azaldu deutso BEGITURI Aimar Fernandez MG Bandakoak.

Hasi ziranetik euki eben argi reggae eta ska musika egin gura ebela. Taldea sortu zanean ez egoan estilo horretako talde asko eta MGk zeozer desbardina egin gura eban, "ez genduan gura 'klitxe' bat zan punk edo rock talde bat egin, nahiz eta hasikera baten ez genduzan deskartetan estiloaren desbiazio horreek" dino Fernandezek.

Denporeagaz, reggae-ren aldeko sensibilizazio hori handiagotu egin da taldekideen bizitzako parte bilakatu arte. Eta eurak be reggaeren parte izatera ai-

legau dira. "Ez dogu ikusten hortik kanpoko bizitza bat, ez MG Banda moduan, behintzat" azpimarratu dau taldeko abeslariak.

Birjaiotzak

Disko batetik bestera taldea barriro egin behar izan da: planteamentu barriak eta soinu barriak esentzia galdu barik. *Ama sua* biniloan kaleratuko dabe, 10 minutuko biniloan, eta plataforma digitaletan.

Sorkuntza prozesu guztian presente egon da biniloan aterateko idea hori eta asko zaindu dabez soinua, abestien estruktura, produktzioa eta diseinua. "Horregaitik kapritxo egindako lan bat da, perfekzioa topau barik naturaltasuna topau guran. Soinu eta produktzio tradizionalago bat gura izan dogu, berotasun puntu bat". Horretarako, zintan grabau eben disko lehengotik, danak batera eta toma gitxitan.

"Aurtengo diskorako gitarrojalea aldatu dogu, honen rock puntutxo bajatutea suposatu dau, arreglo finagoak sartuteko, eta haizeko instrumentu bakar batez geratu gara. Horrek suposatu dau gitarra eta tekladuen presentzia handitu behar izan dogula aspektu melodikoan batez be. Reggae tradizionalagoa urten jaku, oindino be gitarreo potente batzuk entzun ahal dira edo saxo/flauta soloak, edo eritmoaren gorabeherak eta, dinamikak. Laburbilduz, inozko diskorik reggae estilokoena izango da, lehenagoko disko bietako esentzia guztiz galdu barik" dino Aimar Fernandez "Zoro"k.

Diskoa apirilaren erdirako kaleratzea espero dabe eta COVID-19ak eragindako etxetik urten ezinako disko aterateko (edo etxeratzeko) arazorik izan barik. Baina aurkezpen kontzerturik egitea gaxa izango dala uste dabe MG Bandakoak, batez be inok ez dakialako noz arte egon beharko dira etenda kontzertuak eta zuzeneko beste kultura ekitaldiak. Dana dala, hau amaitutakoan gurako leukie diskoaren aurkezpena egiteko kontzerturen bat jo Arratian.

herriko dendetan egin gura diran erosketak azaldu. Eskatutakoa hurrengo egunean jasoko da etxean, goizean zehar. Zerbitzua dobakoa da eta erosketok denda bakotxean ordaindu behar dira, aurrerago. Arrisku taldeko personai zuzendutako zerbitzua da.

DIMA

Udalak herritarren zaintza bermatzeko herritar sarea osatu dau adineko zein patologia desbardinak daukiezen personai erantzuteko. Laguntzeko prest bazagoz edo laguntzea behar badozu deitu 94 631 57 25 telefonora 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Orduetegi horretatik kanpo 665 710 637 telefonora erabili.

Hilaren 17ra arte, Gazte Abenturan, Udaleku Irekietan eta Udaleku Itxietan izena emoteko epea. Gazte Abentura (astea kanpoan) 2002-2007 urteen bitartean jaiotakoak, bagilaren 29tik garagarriaren 3ra izango da. Udaleku Irekiak (Diman goizez) 2007-2015 urteen bitartean jaiotakoak, garagarriaren 6tik 10era izango dira. Udaleku Itxiak (astea kanpoan) 2007-2015 urteen bitartean jaiotakoak, garagarriaren 13tik 16ra izango dira. Dimesten-ek antolatuta. Izena dimedimesten@gmail.com helbidean emon behar da.

Aprilaren 17ra arte emon daiteke izena Dimako Jaietako Pelota Txapelketan parte hartzeako 688 640 221 telefonora edo txumluxueta.pe@gmail.com helbidean. Partiduak konfinamentua amaitutakoan hasiko lirateke eta multzoetako partiduak bagilaren 14rako amaituta egon. Bagilaren 19an izango litzatekez finalurrekoak eta 26an finala.

IGORRE

Egoera zaurgarrian dagozan herritarrek laguntzeko sarea osatu dabe Igorreko Gaztetxeak, kuadrillak eta Udalak. Sarean boluntario beharretan parte hartu gura izan ezkerro idatzi auzolana.igorre@gmail.com helbide elektronikora. Laguntzea behar izan ezkerro deitu 655 363 026 telefonora.

LEMOA

Udal laguntza zerbitzua. Adineko personak, erosketak edo farmaziako gauzak behar badabaz deitu udaletxera 94 631 30 05 telefonora. Udaleku langileak emongo dabe zerbitzu hori saltokietara edo farmaziara joanda eta beharrezko produktuak etxera eroanda.

ZEANURI

Udal zerbitzua nagusiak etxean geldituteko. Medikarenera joan beharra, errekaduak edo farmaziako zeozer behar izan ezkerro deitu 94 673 91 46 edo 688 682 277 telefonora eta behar dana etxera eroango dabe.

ZEBERIO

Adindun edo etxetik atera ezin diranai laguntzea emoteko, Zeberio Solidario taldean boluntario izateko, zein laguntzea eskatzeko, 688 817 309 telefonora deitu edo zeberiosolidario@gmail.com helbidera idatzi.

A K I M I K O

I
m
a
n
O
l
a
t
u



IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak. Deitu 657 777 542 zenbakira.
TREKKING BIZIKLETEA SALGAI
Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

DANERIK ETXEA ALOKAIUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.
PARTZELEA ESKAINTZEN DOT
Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabilz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkeru, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailen, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Lemoako Udalak emondako **Lemoatx 1937. Eusko Gudarostearen azken garaipena liburuaren eta Hauxe da gure kantua CDaren ale bana.**

Gaizka Agirre (Artea)
Maite Belaustegi (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
9-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

begitu
anillo ulda orbera

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatexea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta bukanduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



ARRATIOKO UDALEN MANKOMUNITATEA

Zaborra ondo kudeatuteak be lagunduten dau COVID-19a ez zabalduten

COVID-19a ez zabaltzen lagunduteko, Arratiako Udalen Mankomunitateak zaborra ondo kudeatuteko jarraibideak emon gura dauz. Danon artean, kutsatze gehiagorik ez gertatzea lortu daigun.

COVID-19an positibo emon dabenen edo berrogeialdian dagozan etxeetan zaborrak kudeatuteko jarraibideak:

Pazientearen hondakinak, gaixoak erabiltzen dauan erabili eta botateko materiala barne (eskularruak, zapiak, maskarak), plastikozko boltsa baten (1. boltsea) bota behar dira, gelan dagoan zabor-ontzi batean, ahal dala tapeagaz eta zabalduteko pedalagaz, birziklatzeko inolako bereizketarik egin barik.

Plastikozko boltsa (1. boltsea) behar bezala itxi behar da, eta bigarren zabor-boltsa baten sartu (2. boltsea), gelaren urtekerearen ondoan. Bertan, gainera, jagoleak erabilitako eskularruak eta maskarea itxiko dira, eta gelatik urten aurretik behar bezala itxiko da.

2. boltsea, aurreko hondakinakaz batera, etxeke gainerako hondakinakaz batera errefusa eukiontzari jagokon zabor boltsan (3. boltsea) itxiko da. Atoan, eskuen higiene osoa egingo da, uragaz eta jaboia gaz, gitxienez 40-60 segundotan.

3. boltsea, behar bezala zarratuta, errefusa eukiontzian bakarrik itxiko da.

Positiborik edo berrogeialdirik bako etxeetan:

Hondakinak betiko moduan bereiziko dira, eta bereizketa hori maximizetan saiatuz, sortutakoa errefusa frakzinoa murriztuteko.

Latex edo nitrilozko eskularruak, errefusa frakzinoako eukiontzian bota behar dira.

Etxeko hondakin biltzea:

Errefusa, organikoa, paper kartoia, orioa, beira eta ontziak frakzinoen biltzea zerbitzua ohiko moduan eskainiko da.

Ha-ta guzti be, kutsadura-arriskuak minimizetako, herritarrei eskatzen jakie:

- Eukiontzietatik kanpo hondakinik ez ixtea.
- Eukiontzia eskuz ez ikututea.
- Pedalari lehentasuna emotea.

Tamainu handiko hondakinak:

Zerbitzua etenda dago.

Ontzi zuriaren biltzea:

Donazioak etxean gordetzea gomendatzen da.



Covid-19 Osasun Larrialdia

Euskadiko tokiko saltokiak, funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.

Mila esker!

Guztiei egunero pertsiana igotzeagatik.

Mila esker!

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez arreta emateagatik.

Mila esker!

Zuen lana ezinbestekoa da.

Mila esker!

Euskadiko tokiko saltokietako pertsonei.

Mila esker!

Bertan egoteagatik zuen beharra daukagunean.

Tokiko erosketak, egin kontsumo arduratsua, zero xahutze.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikhurbil

